goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2012-04-04
EGUAZTENA
504. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Ikasleak, profesionalen modura

Pantaila handira egin dute salto MUkoek | 23



Huheziko hiru ikasle. | A.T.

Urtetik urtera, eskaintza turistiko zabalagoa egiten du Debagoienak bisitariendako | 4

Bergarako aurrekontuan inbertsioak %32,9 behera | 12



Azken bi urteotako daturik txarrena utzi du langabeziak gure ibarrean | 5

51 Vuelta al País Vasco Euskal Herriko itzulia

# ERLOJUAREN KONTRA ETZI

Debabarrena eta Kanpanzar-Harrobiak taldeetako ziklistekin errepasatu dugu zapatuko Oñatiko erlojupekoa | 20



Debabarrena eta Kanpanzar-Harrobiak taldeetako txirrindulariak Oñatiko plaza nagusian. | XABIER URTZELAI

# Iaz baino aitorpen mekanizatu gehiago tramitatuko dute Bergaran

Iritsi da ondasunen aitortza egiteko garaia: apirilaren 11tik ekainaren 25era arte da aurten. Eta Ogasunak gero eta autolikidazio proposamen gehiago bidaltzen dituen arren, jende gehienak aitorpen mekanizatua egiten segitzen du. Bergarako bulegoan ere hori espero dute. | 2

## SINADURAK


DIEGO MARTIARTU | 6

6 | IBAN ARANTZABAL



JOSE ANGEL MIKEO | 13

16 | TXOMIN AZPITARTE



MIKEL IRIZAR | 32

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 20
KULTURA 23 | ZURE IRAGARKIAK 27
TELEBISTA-IRRATIA 28
ESKELAK 29 | NON-ZER 30

## APIRILAREN 16RA ARTE, IRAKURLE!

Aste Santuko oporrak hartuko ditugu apirilaren 10era arte. Hurrengo *Goiena* paperekoa apirilaren 16an argitaratuko dugu, astelehena. Ondo ibili oporretan!

## "Elizak ez du asmatzen ebanjelioa herriaren beharretara egokitzen"



**Esteban Agirre**

Eutsi Berrituz kristau-taldeko kidea | 8

## Gipuzkoako konbinatua, Espanyol, Celta eta Olympiakos, Bergaran

Bi partidu jokatuko dituzte Agorrosinen oraingo zapatuan | 13





## Apirilaren 19an Junkera eta Amuritza Arrasaten | 11

# Iaz baino aitorpen gehiago tramitatuko dituzte Bergaran

▸ 2011ko errenta aitortzeko garaia iritsi da

▸ Jende gehienak aitorpen mekanizatua egiten du



Bergarako bulegoko teknikariak, herritarren aitorpen mekanizatua kudeatzen. | GOIENA

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Errenta aitorpeneko autolikidazio proposamenak bidaltzen hasi da Foru Ogasuna, eta dagoeneko zergadunek kontsulta dezakete, Internetez (*www.gipuzkoa.net/ogasuna*), proposamena jasoko duten edo ez eta, jaso behar badute, proposamena bera sarean ikus dezakete. Hori da 2011ko errenta aitortzeko kanpainaren aurrekaria; berau apirilaren 11tik ekainaren 25era bitartean izango da, bi egunak barne.

Astelehenean aurkeztu zuten aurtengo kanpaina Helena Franco Ogasun diputatuak eta Xabier Olano Ogasun zuzendariak, eta honako datuak eman zituzten: aurten, 391.000 aitorpen jasotzea aurreikusten du foru sailak, gehienak (312.000, denetara) zergadunari dirua bueltatzekoak, eta 351.000.000 euro bueltatu behar izatea aurreikusten du Ogasunak. Ordea, zergadunek Ogasunari 131.000.000 euro ordaindu beharko diote, 79.000 aitorpenen ondorioz. PFEZen egin dituen aldaketen emaitza gisa, Foru Ogasunak 69.458.497 euro batzea espero du.

Urtero bezala, Ogasunak Bergaran duen bulegoan aitor daiteke PFEZ, modalitate mekanizatuan. Horretarako hitzordua har daiteke apirilaren 16an hasita. Aitorpen mekanizatua aurkeztu ahal izango da apirilaren 17tik ekainaren 8ra arte. Miren Pozueta da kanpainaren arduraduna Bergaran, eta esaten digu "dena gertu" dutela bulegoan zergadunak hartzen hasteko.

**Autolikidazio gehiago**

Autolikidazio proposamen gero eta gehiago bidaltzen ditu Foru Ogasunak; dena dela, oraindik ere errenta aitorpen mekanizatua da modalitate zabalduena.

Mota horretako iaz baino aitorpen gehiago izango dira; Bergarako Ogasunaren bulegoan hala izango dela uste du Pozuetak: "Iaz baino zertxobait gehiago tramitatzea espero dugu. Izan ere, autolikidazio proposamenak bidaltzen hasi zirenean, jende askok mekanizatua egiteari utzi zion; baina aldaketak egin behar baditu, mekanizatura dator. Zabalduena mekanizatua da oraindik, eta asko aurkezten dira". Hortik dator aurtengo berritasun bat Bergarako bulegoan: bederatzi teknikari ibiliko dira jendeari errenta aitorpena aurkezten laguntzeko, normalean baino bat gehiago. Denetara, 11 lagun ibiliko dira Bergaran errenta aitorpen kanpainan lanean: bederatzi teknikari, arduraduna eta hitzorduen arduraduna.

Aurten, 230.143 autolikidazio proposamen egin ditu Gipuzkoako Ogasunak, aitorpen guztien %59; iaz, 224.066 egin zituen. Proposamenak ikusi eta onartu daitezke Foru Ogasunaren webgunean, Internetera ordenagailuz zein telefono inteligentez edo ukimen-pantailadun eskuko ordenagailuz konektatuta. Azken bi kasu horietan, propio egokitutako programaren bidez kontsultatuko dute erabiltzaileek proposamena. Onartu, baina, apirilaren 11tik hasita onartu ahal izango dira proposamenok.

Foru Ogasunak dioenez, "autolikidazio proposamenak gero eta hobeto egiten dira, eta iaz, jaso zutenen %86ek onartu egin zuten. Hala ere, oraindik zergadun gehienek Ogasunaren bulegoan aurkezten dute aitorpena". Zehazki, Gipuzkoako 110.000 zergadun inguruk horrela egingo dutela kalkulatzen du Foru Ogasunak.

**Internetez edo telefonoz**

Baliteke autolikidazio proposamenean agertzen diren datuak zuzenak ez izatea, aldaketaren bat egon delako tartean: esaterako, zergadunak etxebizitza erosi baldin badu aurreko urtean, edo norberaren egoera bestela aldatu bada. Bestela ere, autolikidazio proposamenaren emaitzarekin ados ez dagoenak ere aitorpen mekanizatua aurkez dezake.

Errenta aitorpen mekanizatua tramitatzeko, ezinbestean hitzordua hartu behar da aldez aurretik, eta horretarako bi modu daude: Internetez, Ogasunaren webgunean, edo 902 10 00 40 telefonora deituta. Pozuetak gomendatzen du Internetez egitea zita: "Errazagoa da, telefonoa kolapsatu egiten delako, batez ere lehenengo egunetan". Beste aukera bat bulegoan bertan egitea da. Bergarako bulegoa zabalik izango da kanpainak irauen artean, astelehenetik zapatura, bi zapatutan –maiatzaren 19koa eta ekainaren 9koa– izan ezik, eta 15 minutuko txandak ematen dituzte, 08:00etatik 13:45era bitartean joateko.

Modu bat edo beste bat aukeratu, hitzordua "beti" egin behar dela azpimarratzen du Bergarako kanpainako arduradunak, eta honakoa gogorarazten digu: "Norberak aurkeztu behar duen aitorpen bakoitzeko txanda bat hartu behar da. Eta beste norbaiten aitorpena aurkezteko, haren idatzizko baimena eta bion NAren kopia aurkeztu behar dira. Interneten badago baimen-eredu bat, baina norberak egindako idatziak balio du".

**Simulagailua eta galdeketa**

Ohiko errenta aitorpena, PFEZ, ere aurkez daiteke Internetez edo paperez. Internet gero eta euskarri erabiliagoa da, ez bakarrik errenta aitorpenaren gaineko beharrizanak egiteko, baita informazioa emateko ere: hala, kanpainaren gaineko informazio guztia, zehaztasun guztiekin, Interneten ipintzen doa Foru Ogasuna, eta berritasun gisa, gida-liburua bakarrik Interneten ipini du aurten, eta ez du paperean argitaratu.

Horrez gain, bere atarian, errenta aitorpena zelan irtengo

**DATUAK**

**11**

OGASUNEKO ORDEZKARI

Ogasunaren Bergarako bulegoan 11 lagun ibiliko dira, ohi baino teknikari bat gehiago.

**110.000**

AITORPEN MEKANIZATU

230.143 autolikidazio bidali ditu Ogasunak, baina denak ez dira onartuko. 110.000 aitorpen bulegoan aurkeztuko dira.

**ESANAK**

**"Autolikidazio proposamenetik norberaren egoera aldatu bada, aitorpen mekanizatua egin behar du"**

**"Txanda Internetez hartzea komeni da, eta aitorpen bakoitzeko bat hartu behar da"**

**MIREN POZUETA**
BERGARAKO ARDURADUNA

**LABUR**

Hona hemen kontuan hartzeko epe garrantzitsuenak.

**DATAK**

**Dagoeneko:** Autolikidazio proposamena Interneten ikusi.

**Apirilaren 11tik maiatzaren 4ra:** Autolikidazioak onartu edo errefusatu.

**Apirilaren 16tik ekainaren 8ra:** Aitorpen mekanizatua aurkezteko hitzordua egin.

**Apirilaren 17tik ekainaren 25era:** Aitorpena Ogasunean egin.

▸ Informazio gehiago, *www.gipuzkoa.net/ogasuna* webgunean edo 902 10 00 40 telefonoan.

go ERRENTA RENTA 2011



## Ondarearena, 5.200 lagunek

Bi ekitaldiren ostean, Ondarearen Gaineko Zerga aitortu beharko da aurten.

**GUTXI BATZUEK**
1.000.000 euroko edo gehiagoko ondarea dutenek ordaindu behar dute; lehen, 404.000 euro zen gutxieneko ondarea. Aldaketak eta krisia direla eta, 5.239 aitorpen espero ditu Ogasunak; 2008an 13.808 izan ziren.

**DIRU GEHIAGO**
29.095.793 euro batzea aurreikusten du Ogasunak. Izan ere, batez beste gehiago ordainduko du bakoitzak: 2008an, 3.256 euro, eta aurten, 5.554.

**BI MODUTARA**
Paperez edo Internetez aurkezten da, eta ez mekanizatuarekin batera.

## Aldundiarekin euskaraz egin nahi?

Errentaren kanpaina aprobetxatuko du Foru Aldundiak erakundearekin euskara hutsez komunikatu nahi dutenen errolda egiten hasteko. Helburua da euskaldunen hizkuntza eskubideak betetzea.

Errenta aitorpen kanpainarekin, 400.000 gipuzkoarrengana ailegatzea espero du Foru Aldundiak. Horiei Ogasunarekiko harremana euskaraz izan gura duten galdetuko die Aldundiak, eta erantzun hori Aldundi osora zabaldu eta pertsona horiekin errolda osatuko du; betiere, "herritarren baimena eskatuta eta Datuen Babeserako Legea errespetatuta", azaldu zuen Euskara zuzendari Zigor Etxeburuak.

**Harremana euskaraz gura dutenen errolda egingo dute**

**Bulegoetan ere eska daiteke**
Errenta aitorpen kanpaina erabiliz gero, autolikidazioa egiten dutenei ere galdera berbera egingo die Aldundiak, baina Euskara Zuzendaritzak onartzen du "ezin bermatu" daitekeela erantzuten duena zergaduna den edo haren partez erantzuten duen senideren bat. Beraz, autolikidazio proposamena jasotzen dutenei eskatzen diete "harremana euskara hutsez nahi badute, bertaratzeko Ogasun Departamentuaren bulego batera eta han egiteko eskaria", esan zuen Etxeburuak.

**Bergaran ere bai**
Errenta aitorpen mekanizatua aurkezteko, Bergarako bulegoan "asko erabiltzen da euskara", esaten du Miren Pozueta kanpainako Bergarako arduradunak, baina batez ere "harremanerako". Izan ere, "jendeak nahiago izaten du gaztelaniaz egitea likidazioa, edo Ogasunarekiko idatzizko harremana, errazago egiten zaiolako hizkuntza teknikoa ulertzea". Hala ere, "gero eta gehiago aukeratzen da euskara" horretarako ere, dio Pozuetak.

den jakiteko simulazio-programa bat ere ipini du, nahiz eta behin betiko programa apirilaren 13an egongo den martxan.

Autolikidazioa Internetez onartzeak ere abantaila batzuk ditu: emaitza helbideratzeko kontu korronte zenbakia aldatu egin daiteke, eta aitorpena aurkeztu izanaren frogagiria berehala eskuratzen da; proposamena telefonoz onartzen denean bakarrik bidaliko dute postaz frogagiria, aurreko ekitaldietan ez bezala.

Ogasunaren webgunean dago ere beste tresna bat: galdeketa bat, zeinaren bidez zergadunak jakin dezakeen PFEZ aitortzera behartuta dagoen ala ez.

Internet da ere norberaren zerga informazioa lortzeko modu azkarrena. Horretarako, Gipuzkoataria webgunetik deskargatzen den programa behar da.



iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR

# 75 urte bete dira gaur bailarako zortzi gudari hil zituztela Larragorrin

▸ Legutioko (Araba) batailan hil zituzten 1937an

▸ Haien omenezko oroitarria dago, hildako leku berean

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Espainiako gerrak gurean lagatako gertakari eta oroitzapen latz ugariren 75. urteurrena beteko da egunotan, eta, gertakariok gogoan izateko, zenbait ekitaldi egongo dira hil bukaera bitartean.

Elgetan, esaterako, apirilaren 24a eta 25a amesgaizto izan dira urteetan herritar askorendako; frontea jausi, tropa frankistak sartu, eta sekulako sarraskiak egin zituzten herrian. Bada, urteurren seinalatu hori ez da oharkabean pasatuko. Udalak ekitaldi bat iragarri du apirilaren 22rako, 12:00etan, eta, biktimen senitartekoez eta herritarrez gain, Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta memoria historikoa berreskuratzeko lanean diharduten elkarteetako ordezkariak ekitaldi horretan egotea eskatu du.

Horrez gain, Elgetako udalbatzak eskari zuzena egin die Espainiako, Italiako eta Alemaniako gobernuei "egiletza onar dezaten" eta "Elgetako herritarrei jendaurreko barkamena eska diezaieten". Eskari hori egitea aho batez onartu zuen udalbatzak aurreko asteko osoko bilkuran.

Bestalde, apirilaren 19an, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak argitaratutako *Historia critica de la guerra en Euskadi (1936-1937)* izeneko liburua aurkeztuko du egileak, Pablo Beldarrainek, 12:00etan Espaloian egingo duten ekitaldian.

**Bergaran argazki erakusketa**

Bergaran *Bergara 1936* delako argazki erakusketa ireki zuten egubakoitzean, Aroztegi aretoan, eta hilaren 29ra arte egongo da ikusgai. Toribio Jauregi argazkilari bergararrak 1936ko uztailaren 18an Espainiako gerra hasi zenetik Elgetako frontea erori arte egindako argazkiak dira. Argazkiekin batera testuinguru historikoa azaltzeko asmoz, II. Errepublikako eta gerra hasierako dokumentuen digitalizazioak ere bildu dituzte antolatzaileek, Bergarako Udal Artxiboak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak. Erakusketak helburu bikoitza du: batetik, Udal Artxiboko argazkiak erabilita herritarrek garai latz haietako lekukotasunak ikustea; bestetik, informazioa jasotzea, eta horretarako herritarren laguntza eskatu dute, argazkietan agertzen diren pertsonak identifikatzeko.

Debagoienetik kanpora ere, Durangon eta Gernikan esaterako, izango dute gogoan 75. urteurrena. Hain justu, aurreko barikuan, izan zuten gogoan martxoaren 31n, herria bonbardatu zutenekoa Durangon. Gernikako bonbardaketaren urtemuga (apirilak 26), berriz, apirilaren 20an izango dute gogoan.

## Legutioko batailan hildakoak gogoan

**Larragorrin (Araba) 1937ko apirilaren 4an gertatutakoaren berri helarazi digu Gidor Bilbaok Legutiotik. Kolaborazio horretan Debagoieneko gudariak hil zituztenekoa dakar gogora.**

*DEBAGOIENEKO GUDARIEK*
*"HIRE ASKATASUNAREN ALDE JIARDUEN"*

*Duela zenbait urte, Iñaki Ugarteburu bergararrak jakin zuenean Legution bizi nintzela, esan zidan urtero egiten zuela ostera bat Legutiora, familiarekin, han hil baitzen bere osaba, Enrique Gastañares, amaren anaia, gerran, 1937an, frentean. Osabaren eta beste gudari batzuen oroimenez jarritako oroitarri batera joaten omen ziren; ez zekien lekuaren izena, baina zehaztasunez azaldu zidan bidea.*

*Berehala gogoratu nintzen etxean gordeta nituen argazki batzuekin. Bergarako Irargi Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentruan eskuratuak nituen argazki horiek, artxiboaren katalogoaren deskripzioak erakarrita. Batek honela zioen: "Funeraria en Villarreal. Fue colocada en Larragorri (1964-65), sector del frente de Villarreal en recuerdo de los gudaris muertos en la batalla de Villarreal y esculpida por un marmolista de Derio de ideas carlistas, costó 5.000 pts. En el centro un lauburu y le acompaña la siguiente inscripción: Ire azkatasunaren alde jiarduen. 1936-1937". Eta besteak honela: "Misa celebrada en septiembre de 1973 en recuerdo de los gudaris muertos en la batalla de Villarreal". Behin baino gehiago Legution galdezka ibilia nintzen, ea norbaitek ezagutzen zituen argazkiko apaiza edo emakumeak, eta inork ez zituen ezagutzen; ea hilarria norbaitek ezagutzen zuen, eta ezta hori ere.*

*Iñaki Ugarteburuk argitu zidan guztia: argazkikoak ez ziren billerlearrak, bergararrak baino (bere ama eta izeba, gutxienez), Bergarako gudarien omenez eraikia baitzen hilarria; eta ez zen zehazki Legutioko batailaren eremuan eraikia (Albertia inguruan), urtegiaren beste aldean baino, gazte haiek hilda erori ziren inguruan. Pare bat aldiz joan nintzen oroitarriaren bila, eta ez nuen aurkitu; handik gutxira, 2009an, Iñaki hil zen.*

*Duela gutxi Iñakiren arreba eta alargunarekin elkartu nintzen Ugarteburu Sarien sari-banaketan. Hitz eman nien oroitarria aurkituko nuela eta garbituko nuela. Beste pare bat ibilaldi egin behar izan dugu Iñakik esandako inguruetatik, oroitarria aurkitu arte. Gaur garbitu dugu, eta ondoan duen ikurriña berriz margotu dugu. Kuriositatez, Intxorta 1937 elkartearen "Euskal Herria. Izen guztiak, aurpegi guztiak" zerrendan bilatu dugu Larragorri, ea hor nor eta noiz hil zen ikusteko, eta ikusi dugu, kasualitatez, 1937ko apirilaren 4an hil zutela Enrique Castañares (sic); aste honetan 75 urte beteko direla, hain zuzen. Eta, egun horretan, Bergara, Antzuola eta Elgetako beste zazpi mutil ere hil omen ziren Larragorrin (Itxarkundia batailoikoak eta Loiola batailoiko "Bergara" konpainiakoak ziren). Beste iturri batzuetan berretsi gura izan dugu datua, eta, izen batzuetan datu desberdinak agertzen direnez, nahiago izan dugu hemen beste izenik ez aipatzea.*



Larragorriko oroitarria. | GIDOR BILBAO

*Debagoieneko gudari haien omenez, duela 75 urte gure askatasunaren alde jardun zutelako, eta, zergatik ez, baita Iñaki irakasle eta adiskidearen omenez ere, euskalgintzan gudari haien ametsaren oinordeko garela erakutsi zigulako, Larragorri eta 1937ko apirilaren 4 beltza gogoratu gura izan ditugu hemen.*

**Gidor Bilbao**
EHUko irakaslea Letren Fakultatean eta Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordea

**NON DAGO LARRAGORRI?**

**Legutiotik Barazarrerako bidean, urtegi gaineko zubi luze ezaguna igaro ondoren, berehala, Etxebarri auzoko etxeak daude. Lehenengo etxea baino lehen hartu behar da urtegi gain-gainetik doan bidea. Autoz egin daiteke zati handi bat (bidea zuloz beteta dagoen arren), baina oinez egiteko ere bide atsegin eta erraza da (3,6 km joan eta beste horrenbeste etorri). Autoa utzi behar den lekuan hasten da aldapa, baina hortik oroitarrira ez da hogei minutu baino gehiago behar (875 metroko bidea eta 140 metroko garaiera-aldea). Oroitarria pagadian dago, bi lubaki-lerro eta zenbait obus-zulo igaro ondoren. Azaldutako hauxe bide laburra baino ez da, baina mendizaleek bidea luzatzeko aukerak badaude (Motxotegira igo eta Aiaotik jaistea, adibidez).**

# Ohiko eskaintza turistikoari 'Bergarako besarkada'-ren gunea gehituko zaio aurten

Irizar jauregian egokitu dute eta I. Karlistaldiari amaiera eman zion hitzarmena irudikatzen du

M.B. | ARRASATE

Urtetik urtera eskaintza turistiko zabalagoa du Debagoienak bisitariak gurera erakartzeko eta bertakoak asetzeko. Aste Santu atarian, hilaren 15era arteko eskaintza eman dute ezagutzera bailarako turismo bulegoek eta museoek. Aurtengo berrikuntza Bergarako Irizar jauregiaren sarreran jarri duten *Bergarako besarkada*-ren gunea da. Hain justu, jauregi horretan berretsi zuten 1839. urtean I. Karlistaldiari bukaera emango zion hitzarmena Espartero eta Maroto jeneralek. Panelen eta tamaina errealeko figuren bidez hitzarmenaren nondik norakoak azaltzen dira gune horretan.

**Hiru turismo bulego**

Bailarako turismo bulegoei dagokienez, Arantzazuko santutegian dagoen Debagoieneko turismo informazio eta interpretazio zentroa (943 71 89 11) 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:30era egongo da zabalik, eta, bailarako informazio orokorra ematearekin batera, bi bisita gidatu eskainiko ditu: batetik, Arantzazuko santutegia ezagutzeko aukera dago; eta bestetik, *Oteiza eta Arantzazu* izeneko bisita ere egin daiteke, 10:30ean, 11:30ean, 12:30ean, 16:00etan eta 17:00etan.

Oñatiko Turismo Bulegoan ere bisita gidatuak egiten dituzte, aldez aurretik izena emanda (943 78 34 53). Oñatin, bestalde, Arrikrutz Kobak ezagutzeko aukera ere badago, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara, 943 08 20 00 zenbakira deituta.

Bergarako Turismo Bulegoa astegunetan 10:30etik 14:30era eta domeketan 10:30etik 13:30era egoten da zabalik, eta gune historiko-monumentalaren bisita gidatuak eskainiko dituzte, egunero, debalde, bulegoaren ordutegian.

Elgetari dagokionez, *Gerra Zibila Euskal Herrian. Intxortako ibilbide tematikoa* delako bisita gidatua egiteko aukera egongo da hilaren 8an eta 15ean, aurrez izena emanda 943 71 89 11 zenbakian.

Leintz Gatzagako gatz museoan ere bisita gudatuan egingo dituzte zapatu, domeka eta jaiegunetan, 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Gainerako egunetan egin nahi izanez gero, aurrez eskatu behar da, 665 73 95 59 zenbakian. Eskoriatzan, Ibarraundi museoa bisita daiteke 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara (943 71 54 53).

## Oñati eta Arantzazu arteko autobusak udako ordutegia hasiko du

Gaur, apirilak 4, hasi eta abuztuaren 26ra arte udako ordutegia izango du Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzuak. Oñatitik abiatuko da lehenengoa Arantzazura 08:00etan eta orduro irtengo da bat 19:00ak arte –hori barne–. 11:00etakoa Arrikrutzera ere joango da. Beherako lehenengoa 08:30ean abiatuko da Arantzazutik eta orduro irtengo da bat 19:30ak arte –hori barne–. 13:30ekoa Arrikrutzen ere geratuko da. Autobus zerbitzu hori domeka eta jaiegunetarako da. Hala, hilaren 7a jaieguna ez denez zerbitzurik ez dela egongo azpimarratu dute.

# Antzuolako atez atekoaren lehenengo urteak emandakoarekin pozik daude Mankomunitatean

▶ Datuen balorazioa egin zuten Antzuolako alkateak eta Mankomunitateko ordezkariek

▶ Betiere datuek gorako tendentzia erakusten dutela nabarmendu zuten komunikabideen aurrean

**T. MADINA/E. MENDIBIL** | ARRASATE

Atez ateko hondakinen bilketa sistemak urtebete beteko du egunotan Antzuolan, eta urtebete honetan lortutako datuen balorazioa egin zuten aurreko astean Antzuolako Udaleko eta Mankomunitateko ordezkariek. Emaitza bikainak izan direla azpimarratu zuten komunikabideen aurrean, eta gorantzako tendentzia erakusten dutela gaineratu. Egun Mankomunitatean dauden birziklatze tasei buelta emateko asmoa ere adierazi zuten Debagoieneko Mankomunitate arduradunek.




Azkarragaurizar, Beristain eta Iturbe, Mankomunitatearen egoitzan joan den eguaztenean egindako agerraldian. | T.M.

### Emaitza bikainak

Atez ateko sistemaren lehen urteari buruzko emaitzek aldaketa nabarmena erakusten dutela azpimarratu zuten Antzuolako alkate Inma Beristainek, atez atekoaren jarraipen batzordearen buru Jose Mari Iturbek eta Mankomunitateko presidente eta Arrasateko alkate Inazio Azkarragaurizarrek.

Gaineratu zuten emaitzak bikainak izan direla, hasiera-hasieratik onak eta, gainera, poliki-poliki beti ere gorako tendentzia erakusten dutela. Datuei dagokienez, hondakin globala %15-%20 tartean jaitsi da lehen urtean, eta gaineratu dute aintzat hartu behar dela ez dutela Antzuolan izan den autokonpostajearen igoera kontuan hartu. Gainera, esan dute lehen zortzi hilabeetean lantegiek sortutako errefusa estimatu egin dutela; azken hori ez da atez ate jaso, Mankomunitateko ibilbidean baizik.

### Gaikako bilketa

Egun batetik bestera, hondakinen %32 inguru birziklatzetik %80 birziklatzera pasatu direla nabarmendu zuten. Gaikako zabor bilketari dagokionez, errefusaren kasuan nabarmen egin du behera jasotako kopuruak, aurreko urtean baino lau bider gutxiago jaso da-eta. Gainerako mota guztietan igo egin da jasotakoa. Bereziki aipagarriak dira hondakin organikoen eta ontzien kasua. Organikoetan datuak aurreikuspenen barruan daude, eta oso onak direla zehaztu dute: ezer ez jasotzetik 180.000 kilo jasotzera pasatu dira. Ontzien kasuan ere ia bikoiztu egin da jasotako kopurua.

Inazio Azkarragaurizarren arabera, Mankomunitatean %30 birziklatzen da eta gainerakoa Sasietako hondakindegira bideratzen dute. Helburuak kopuru horiei buelta ematea izan behar duela eta hori denon esku dagoela esan zuen. Mankomunitateak sentsibilizazio kanpaina jarriko du abian herritarrak hondakinen gaiaz ondo informatzeko.

**ESANAK**

**"Eskerrak eman nahi dizkiet herritar guztiei lortutako emaitzengatik"**

IMA BERISTAIN
ANTZUOLAKO ALKATEA

**"Sinplea eta erraza da etxean hondakinak behar bezala sailkatzea"**

INAZIO AZKARRAGAURIZAR
ARRASATEKO ALKATEA

# Debagoienean 3.370 langabe martxoan: azken bi urteetako daturik txarrena da

Azken datuen arabera, langabezia tasa %10,87an kokatzen da ibarrean

**GOIATZ ARANA** | ARRASATE

Langabezia tasak gora egin du berriz ere bailaran: otsailean baino 24 langabe gehiago eta urtarrilean baino 83 gehiago zenbatu zituzten martxoan Debagoieneko herrietan. Azken bi urteetako daturik txarrena da aurreko hilabetekoa.

Kopuru orokorrak begiratuta, Debagoienean 3.287 langabe ziren urtarrilean; 3.346 otsailean; eta 3.370 martxoan. Kontuak kontu, %10,87an dago langabezia tasa ibarrean.

Herriz herri aztertuta, lanik gabeko gizon-emakume kopurua igo egin da Antzuola (102 langabe), Arrasate (1.387), Bergara (830), Elgeta (51 langabe) eta Oñatin (458); eta jaitsi egin da, aldiz, Aretxabaleta (313), Eskoriatza (224) eta Leintz Gatzagan (5 langabe zenbatu zituzten otsailean).

### 2010eko martxotik, txarrenak

Debagoienari dagokionez, 2010eko martxora arte egin behar da atzera egungo langabe kopurua gainditzen duen zenbaki bat aurkitzeko: 3.460 langabe zeuden sasoi hartan gure ibarrean. Aurtengo otsailekoak dira, horrenbestez, datu txarrenak ordutik hona.



Aretxabaletan 313 langabe zenbatu zituzten martxoan. | GOIENA

### 45.596 langabe Gipuzkoan

Langabeziak gora egin du Hego Euskal Herrian ere; Nafarroan izan ezik, beste hiru lurraldeetan igo egin da. Hego Euskal Herrian, orotara, 213.470 pertsona zeuden lan barik martxo bukaeran; Araban, 25.267; Bizkaian, 91.055; Gipuzkoan, 45.596; eta Nafarroan, 51.552.

## Erostarbek, Ezenarrok eta Basabek ez dituzte legebiltzarkide karguak Aralarren esku utziko

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARRASATE

Elgetako alkate Oxel Erostarbek, Aintzane Ezenarrok eta Mikel Basabek ez dituzte legebiltzarkide karguak Aralar alderdiaren esku utziko. Horrela adierazi zuten hiru legebiltzarkideek atzo goizean auziaren inguruan argibideak emateko egindako agerraldian.

Hiru legebiltzarkideek adierazi zuten kontzientziaz bozkatu eta koherentziaz jokatu zutela, eta Aralar alderdiko zuzendaritzaren bilera proposamena oporren ostera atzeratu dutela. Basabek gaineratu zuen diziplina neurririk behar ote den Aralarko zuzendaritzak erabaki beharko duela.

Zatiketa Bakerako lantaldearen bozketak eragin du. Aralarko koordinatzaile nagusi Patxi Zabaletak esan du hiru legebiltzarkideek ez dietela erantzun nahi izan barikua ezkero zuzendaritzak bidalitako mezu elektronikoei.

## Debagoieneko Zero Zabor Astearen inguruan ekitaldiak apirilaren 16tik 21ra bitartean

**E.M.** | ARRASATE

Debagoieneko Zero Zabor Taldeak antolatuta, hainbat ekitaldi izango dira ibarrean hilaren 16tik 22ra bitartean. Astelehenean, hilak 16, 19:00etan, *El sucio negocio de la incineración en Sakana* dokumentala eskainiko dute Arrasateko Kulturaten eta ordu berean, Eskoriatzako Huhezin, komunikabideen jokaera izango dute aztergai. Martitzenean, hilaren 17an, Pello Lozano EHUko irakasleak hitzaldia egingo du Bergaran, Irizar jauregian, 19:00etan. Eguaztenean, Gorka Buenoren hitzaldia izango da Kulturaten, 19:00etan, eta dokumental proiekzioa Oñatiko Santa Anan, 20:00etan. Hilaren 19an, 19:00etan, hitzaldia eta dokumental emanaldia Elgetako kultura etxean eta Aretxabaletako Arkupen, hurrenez hurren. Hilaren 20an, berriz, Aretxabaletan eta Oñatin izango dira ekitaldiak eta zapaturako, hilaren 21erako, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Bergaran; tartean; herri bazkaria eta musika kontzertua gauean.

## ZABALIK



**DIEGO MARTIARTU**
http://goiena.net/iritzia/

# Golgotaz gogait

Izango da kale-agerraldi jendetsuagorik… izango da bilkura zaratatsuagorik… higuingarriagorik ordea… ez. Aste Santuko prozesioez ari naiz, jakina. KKK-ko txano puntadunak danbor hots monotono tetrikoak Jesukristo gurutziltzatua San Pedroren oilarra Judas Iskariote eta sursum corda! Mutikotan, telebistan ikuste hutsarekin ondoezak jotzen ninduen eta ondo gogoan dut behin pota karra bota nuela egongelako alfonbra gainera. Txahal berdea zen, bike lirdinga. Exorzistari deitu ala ez, gurasoen kezka.

> **"Negargarria iruditzen zait mendiak gurutzez josita egotea"**

Egun santu hauek eragiten didaten atzerakada ez dut atzo goizekoa. Baina kontua tradizioak eta inoren ohiturak errespetatzea baita, ikasi dut Oñatiko Balmasedako Sevillako prozesio horiei guztiei ezikusi egiten. Aste bateko kontua da atzen finean. Aste okaztagarri bat. Pazientzia pittin bat eta pasatu da; gripea bezala. Dena pasatzen da. Instantekoak gara eta nor bere zoroak bizi du. Libre gara eskizofreniaren mundu harrigarrian sartzeko Goikoarekin wifi barik komunikatzeko sineskerian bizitzeko geure burua gura dugun moduan izorratzeko.

Negargarria iruditzen zait ordea inguruko mendiak, Udalatx Muru Kurtzebarri Aloña Tellamendi, gurutzez josita egotea. Erlijioa bizi dezala bakoitzak bere golkoan edo horretarako prestatutako txiringitoetan: elizan meskitan San Mamesko katedralean…

Gurutzea gizakiak torturatzeko eta akabatzeko tramankulu bat da. Ez diot ikusten beste misteriorik. Berdin-berdin zaizkit mendian urkamendia aulki elektrikoa garrote vil eta gurutzea. Denak dira ilunak goibelak tristeak. Barka, kristau finok, baina zapatu domeka goizetan ez dut sadomasorako gorputz-arimarik izaten. Gurago txoriei entzutea loreak usaintzea, paisaiaz gozatzea… Errespetuz eskatzen dizuet: ken itzazue gurutze horiek guztiak nire begien bistatik, otoi, mendi irteerak ez daitezen gehiago Golgotarako gurutzebide izan.

## USTEAK USTE

**IBAN ARANTZABAL** | iarantzabal@goiena.com

# Neurria ematea dagokigu

Mus partida honetan handira jokatzeko garaia" dela dio Topaguneko lehendakariak. Ados nago "mugimendu izatera pasa" behar dugula dioenean. Euskararen aldeko diskurtsoa berritzen dihardugu Topagunetik eta ekologia eta berdintasun parametroak aipatzen dira egoki asko. Horiek behar ditugu hedabideok ere ipar eta ezin dugu utzi euskarazko beste komunikabide bakar bat ere ixten, esaterako. Are gehiago, politikak eskatuko ditugu euskararentzat. Euskara elkarte eta hedabideok etxeko lanak egiten dihardugu eta sasoi hauetan ondoan behar ditugu, inoiz baino tinkoago, udalak, aldundiak eta Jaurlaritza. Neurria ematea dagokigu une erabakigarri honetan.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Hizkuntza irizpideak

**Aritz Galarraga**
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Galiziako TVG telebista publikoak kargu hartu dio aurkezle bati *g* hizkiaren ahoskatze estandarrena ez erabiltzeagatik.

Hots, "gracias" edota "ata logo" horien partez, "jracias" eta "ata lojo" esateagatik, betiere *j* hori hasperenduna izanik —ekialdeko euskalkietan *h* hizkiaren antzera, nire fonetika ezagutzen arabera—, eta ez espainieraren *j* hizkiaren ahoskatze estandarrena.

Real Academia Galegak onartu egiten du ofizial gisa hasperentze hori ere, baina eremu formaletarako ez du egoki ikusten.

Bada kontra egiten dion hizkuntzalaririk, ofizial eta erabilia izanik, galdetzen duenik zergatik ukatzen zaion, adibidez, albistegietarako sarrera.

Ezen albistegietako zuzendaritzatik etorri baita agindua, eta aurkezleak, noski, aldatu egin behar izan du ahoskera derrepentean.

Gauzak etxekotzeko joera patologikoaren ondorioz, euskarazko telebista publikoan zer gertatuko litzatekeen irudikatu dut.

Tarteka kritikatu izan da bertan erabili den euskara, egia —hori euskara erabiltzen denean; begira bestela zer egiten ari diren *Zaindu* saio estreinatu berriarekin—.

ETB1en euskara irizpideak zeintzuk diren zuzen jakin gabe —badago jakiteko modurik, dokumenturik?— pentsatzekoa da Euskaltzaindiaren arauak jarraitzen direla, estuki.

Eta, ondorioz, *j* hizkiaren kasuan, luze gabe, Euskaltzaindiak dioena egiten dela.

Hots, salbuespenak salbuespen, *j* letraren euskarazko ahoskera oinarrizkoa *y* denez, albistegietan-eta ahoskera hori ematen zaiola.

Hala ere, eta gaurko egoera kontuan izanik, pentsatzen dut espainiera eta frantsesaren *j* estandarrak ere, onartuak izanik, lasai asko erabil litezkeela egoera informalagoetan, telesail batean, esaterako.

Ez dakidana da Lekeitioko tertuliakide bati *j* hizkia herriko ahoskeran egiteagatik kargu hartuko lioketen.

Baina arrazoi duzue, txikikeriak dira horiek guztiak.

Galegoen kasuan ere bai, arazo puskaz larriagoak dituzte: galegoa erabiltzen ez duten tertuliakideak, estandarra erabiltzen ez duten esatariak, gaztelaniaren meneko galegoa erabiltzen dutenak, akats larriak dituzten idazkun etengabeak, eta abar.

Ez dakit horietako zenbat ekar daitezkeen gurera, horietako zenbat ditugun benetako arazo.

Saioaren araberakoa ere izango da, seguru.

Baina orduan, zergatik ez, zalantzak uxatzeko, hizkuntza irizpideak txukun argitaratu?

Addenda.

*A revista* albistegiaren asteburuetako edizioan eman da ahoskera aldaketa; hemen ikus daiteke. [Sarean lotura]

*Zaindu* saio estreinatu berriarekin egiten ari direnak eztabaida sortu du, Sustatun. [Sarean lotura]

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka
2012
Apirilak 19-20

## FORMAZIOA LANERAKO AUKERA!

Prestakuntza arloko eskaintza
Enplegu Zerbitzuak
Ekintzaileentzat Zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimentuak
Zozketak

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.
- **ZER EGONGO DA?** Lanbide Heziketako ikastetxeak, formazio akademiak, hainbat enpresa eta enplegu zerbitzuren informazio stand-ak, hitzaldi eta tailerrak, eta makina eta esperimentuak.
- **ZERTARAKO?** Lanbide Heziketaren berri eman eta eskualdeko formazio aukerak plazaratzeko.

**ANTOLATZAILEA**

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Nafarroa etorbidea, 17 - behea
20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA)
Tel.: 943 793090 Fax.: 943 796772
*garapen-agentzia@debagoiena.net www.debagoiena.com*

*www.facebook.com/goiazdebagoiena*

EUSKADI Goza ezazu · EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO · INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA / DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO · spri

**Non:** Kulturateko klaustroan, Arrasate.
**Noiz:** Apirilak 19 eta 20an
**Azoka ordutegia:** 09:30-13:30 eta 16:00-18:00

## Apirilak 19, osteguna

**09:30 Hitzaldia: EKINTZAILE GAZTEEN ESPERIENTZIAK (EU)**
Goiena Sport Kirol Zerbitzuak / Belun Argazkiak / Alet Taldea
____Kulturateko Areto Nagusian

**11:00 Hitzaldia: “ATZERRIRA LANERA JOATEKO AUKERAK”**
- Europa, zure aukera (Europan lan egiteko informazioa) (ES)
>> Violeta Morcillo, Lanbideko EURES aholkularia.

- Negozioak Txinatar erara. Zortzi urteko esperientzia abiadura handiko herrialdean.
>> Jokin Laspiur (Mondragon Taldeko Asiako Erosketen Arduraduna) (EU)
____Kulturateko Areto Nagusian

**18:00 Hitzaldia: “LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK DEBAGOIENEAN” (ES)**
Ikasle eta enpresetako giza-baliabideen arduradunekin LHri buruzko mintzaldia.
____Kulturateko Areto Nagusian

## Apirilak 20, ostirala

- **EKINTZAILETASUN TAILERRAK** Garaion-en eskutik

**10:00 PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK: LANBIDERATZEKO BESTE AUKERA BAT (EU)**
*Zer dira Profesionaltasun Ziurtagiriak / Nola lortu / Noiz eta nola eskatu*
>> Gloria Gonzalez Marco (Enplegurako Lanbide Heziketaren Azpisistema Integratzeko Teknikaria- Lanbide)

**- ENPRESA ETA FORMAZIOA (EU)**
Enpresetan formazioa gauzatzeko eta langileen kualifikazioa hobetzeko dauden egungo aukerak azalduko dira.

- Eskaintza irekia (Lanbide eta Hobetuz)
- Lan Esperientziaren bidez Lanbide Gaitasuna Egiaztatzeko Egitura
- Gizarte Segurantzaren Prestakuntza Hobarien sistema (Fundación Tripartita)
- D.N.F.: Enpresen formazio beharren diagnostikoa.
>> (Aretxabaletako Lanbide Eskola eta Miguel Altuna Institutua).

**12:00 LAN-ELKARRIZKETA NOLA PRESTATU: AURKEZTU ETA KONBENTZITU (ES)**
>> Nork emana: Arrasateko LANBIDE bulegoko orientatzaileek.
- Iraupena: ordubete
- Izenematea: 943 79 30 90 / debagoiena.goiaz@gmail.com

**ARRETA PERTSONALIZATUA** aurrez ordua eskatuz, zalantza profesionalak argitzeko edota interesatzen zaizun zentro edo titulazio bat ezagutzeko zentroko arduradun/irakasleren baten eskutik.
Deitu **943 79 30 90** edota idatzi **debagoiena.goiaz@gmail.com** helbidera.



Iñaki Riviere
*“Lanbide Heziketak enpresarekin duen lotura nabarmenduko nuke, unibertsitate ikasketekin konparatuz”*



Jose Fernandez
*“Lan arloan hobetzeko ikasi nuen goi mailako heziketa zikloa Miguel Altuna institutuan”*



Gorka Cid Luaces
*“Lanbide Heziketa unibertsitatea baino askoz praktikoagoa da; denbora laburrean askoz gehiago ikasten da”*



Rosa Maria Casado Dopazo
*“Lanbide Heziketako praktikek lan-mundua ezagutzen laguntzen dute; gero zerekin topo egingo duzun jakiteko aukera duzu”*



Monsef Amzaouri
*“Goi-mailako zikloan teoria asko ikasten da, eta enpresa asko ere ezagutu ditut”*

**PARTEHARTZAILEAK AZOKAN**

Oñati gestio heziketa · Oñatiko b.h. institutua · Mariaren Lagundia Ikastola · Miguel Altuna Institutua Bergara · Arizmendi Ikastola · Aretxabaleta Lanbide Eskola · Goi Eskola Politeknikoa / Escuela Politécnica Superior · Mondragon Unibertsitatea · imh · Helduen Heziketa Iraunkorra / Educación de Personas Adultas (E.P.A.) · Akademia Bastida · Ikasi · bizikasi · alecop · kutxa zeharo · Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua / Servicio Vasco de Empleo · EURES · Arrasateko Udala / Ayuntamiento de Mondragón · Bergarako Udala · Oñatiko udala · Aretxabaletako Udala · saiolan

**Esteban Agirre** | Eutsi Berrituz kristau-taldeko kidea

# "Elizak ez du asmatzen ebanjelioa herriak sumatzen dituen beharretara egokitzen"

- Eliztar laikoz osatutako kristau-taldea kritiko da gaur egungo Eliza Katokikoarekin
- Oinak lurrean eduki eta herritarren benetako beharrei ez dietela erantzuten diote

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Eutsi Berrituz kristau-taldea kritikoa da Eliza ofizialak daroan bidearekin. Errealitatetik urrun ikusten du eta aldarrikatzen du ebanjelioa herritarren beharretara interpretatzea, egungo "benetako arazoei" aurre egiten laguntzeko. Gipuzkoako Eliza ofizialak datozen bost urteetarako prestatu duen Pastoral Egitarauarekiko ere irakurketa kritikoa egiten du Eutsi Berrituz taldeak, eta salatzen du ez dituztela kristau talde laikoen iritziak kontuan izan.

**Zer da, zehazki, Eutsi Berrituz?**

Gipuzkoako hainbat fededunen talde bat, kristau talde bat, hainbat urtean, Gipuzkoako Elizarekin batera, elkarlanean jardun duena. Orain arteko bideari eutsi nahi diona, berritu behar dena berrituz. Gure asmoa ez da elkarte bat sortzea edo alderdi politikoen antzera aritzea, alderdi politikoen helburua delako beraien ideologia finkatu eta agintea eskuratzea. Guk ez dugu nahi Elizaren agintea eskuratu. Behe mailako fededunak gara.

**Zerk bultzatu zintuen taldea osatzera?**

Ikusten genuen Munilla gotzainaren izendapen berri honekin bazetorrela berrikuntza bat. Ez berrikuntza bat herritarrek edo bertako eliztarrek eskatzen zutena, baizik eta aurretik egindakoa desegitera zetorrena. Lanean ari ginenoi ezer kontsultatu gabe, goitik, oso goitik, hartutako erabakia zela. Aldaketak hitz eginda egiten dira, ez inposatuta. Orain arte egindakoari eutsi eta etengabe berritzen joan, horixe da gure taldearen espiritua. Beste Eliza bat nahi dugu. Elizaren norabidea oinarrizko fededunekin kontsultatuta adostu behar dela.

**Ez dute hala egin?**

Ez. Goitik eta helburu jakin batzuekin hartutako erabakiak dira. Batetik, gotzainaren beraren izendapena. Bestetik, ikasturte honetan hasi eta hurrengo bost urteetarako osatu duten Pastoral egitaraua, *Berak gida gaitzala* izenekoa, ez dituzte gurekin adostuta egin. Azken unean kontsultatu digute, baina, gainera, iradokizunak ez dituzte aintzat hartu. Ez zaigu jokabide egokia iruditzen.

**Zergatik ez zaituztete aintzat hartzen?**

Gotzainak esan du talde gisa legeztatzen garenean Elizaren barruan, orduan hartuko gaituztela aintzat. Edozelan ere, ez dugu hori egin nahi. Badira gurekin bat datozen pertsonak, izen eta abizena dutenak, eta batzuk apaiz ere badirenak, eta horien iritziak ez dituzte aintzat hartu.

**Gaur egun agintzen duen Elizak hartu duen bidearekin kezkatuta zaudete?**

Oso kezkatuta. Herri honek badituelako bere kezkak, bere galderak... eta guk horiei egin nahi diegu aurre: arazoak aztertu eta kristautasunez erantzun. Baina gaur egungo Elizak ez du hori egiten. Guretako erreferentzia, jarraibidea, ebanjelioa, Jesus, da; ez Elizaren hierarkia edo agintariak. Herri honen lehentasunei ez die erantzuten gaur egungo Elizak. Hori argi geratu da *Berak gida gaitzala* izeneko Pastoral egitarauan.

**Zeintzuk dira herri honen kezka nagusiak, zuen ustez?**

Elizak herritarren benetako arazoei egin behar die aurre. Hankak lurrean behar ditu, egunerokoari erantzun. Esaterako, herri honek urte askoan bizi duen gatazka egoerari ez dio behar bezala erantzuten Elizak. Iaz urriaren 20an mugarri garrantzitsu bat jarri zen, ETAk behin betiko jardun armatua uzten zuela iragarri zuenean. Baina horri ez dio behar bezala heldu Elizak. Bestalde, krisi ekonomiko gogorra bizi dugu. Pertsonak daude hori sufritzen. Etxebizitza galtzen, lanpostuak galtzen... Eta denok dakigu egoera injustu hori nortzuek sortu duten: ahaltsuenek, botere faktikoek. Eta, Elizak, horren aurrean, ez du ahotsik altxatzen.

**Eliza eguneroko errealitatetik urruntzen doala sumatzen duzue...**

Bai. Elizaren hierarkia bai. Familia, abortua, dibortzioa, ezkondu aurreko harreman sexualak... halako gauzekin dago kezkatuta gaur egungo Eliza ofiziala. Horien inguruan euren iritzia ematen dute eta hainbat kolektibok manifestazioak antolatu dituenean gai horien gainean, gotzainak samaldan joan dira haiekin.

**Vatikanoko Kontzilioan hartutako bidea baztertu egin du Elizak?**

Bai. Horixe da egiten dugun irakurketa. 1965ean amaitu zen Vatikanoko II. Kontzilioak leiho bat ireki zuen. Haize berria sartu zen. Irizpide batzuk eman ziren. Eta irizpide horiek, zela edo hala, behe mailetan ezartzen joan ziren. Baina, azkeneko urteotatik hona, eten egin da hori. Haize berria ezin dutelako kontrolatu.



Esteban Agirre, astelehenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

> "Herri honen lehentasunei ez die erantzuten gaur egungo Elizak"

> "Familia, abortua, dibortzioa... halako gauzekin dago kezkatuta Eliza"

> "Bakegintzan lana daukagu egiteko; berradiskidetzea da orain inportanteena"

> "Jesusek dioena hartu behar du aintzat Elizak, ez Munillak dioena"

**Gaur egun, Eliza Katolikoa geroago eta kontserbadoreagoa da?**

Ez naiz sartuko halako irakurketak egiten. Guk diogu Elizak ebanjelioa hartu behar duela aintzat. Ez Ratzingerrek edo Munillak diotena, Jesusek dioena baizik. Esaterako, iaz azaroan egin genuen bilkura bat Arantzazun, Baketik-en, eta han elkartu ginen 500 lagun, bakerako eta bizikidetzarako urratsak egiten hasteko. Uste dugu hori dela bidea. Izan ere, bakegintzan izugarrizko lana daukagu egiteko. Berradiskidetzea da orain inportanteena eta hori ezingo du ETAk egin, ez dakit ze erabaki hartzen duelako, eta ezingo du Gobernuak bakarrik egin, bere aldetik egin. Hori herriak egin behar du. Barkamena zela ulertu behar dugun, biktimek ze paper jokatu behar duten, biktimak eragin dituztenek zer egin beharko luketen... Hori guztia uste dugu herritarrok erabaki behar dugula.

**Gaur egungo jendarteak fede-krisia bizi duela uste duzu?**

Bai, hori agerikoa da. Baina zeinek izan dezake gogoa, ikusita ze kolore daukan gaur egungo Elizak, murgiltzeko ebanjelioan? Ikusita zerk mugiarazten duen eta zeren aurrean isiltzen den. Zoritxarrez, kontua ez da ebanjelioa lekuz kanpo dagoela. Uste dut gaurkotasun osoa duela. Elizak ez du asmatzen ebanjelioko gauzak herriak sumatzen dituen beharretara egokitzen. Ebanjelioaren berba publikoki agertzen denean, dibortzioarekin eta halakoekin lotzen da. Eta gai horiez ari bada behin eta berriro Eliza, bada, jendea uxatu besterik ez du egiten.

**Arantzazuko azken erromesaldian, zapatukoan, 2.000 lagunek hartu zuten parte. Azken urteotan baino gutxiagok. Zergatik izan daiteke hori?**

Iaz hemengo herri batetik joan zen erromesaldira autobus bat eta aurten izena eman dute sei lagunek. Adierazgarria da.

**Debagoienean ere badiharduzue lanean, ezta?**

Bai, bai, hemengo jendea ere badago gure taldean. Hilean behin elkartzen gara. Eta apirilaren 28rako Donostian topaketa antolatu dugu bakerako urratsak egin ditzagun, geldirik egon barik urrats txikiak egiteko.

# HERRIAK

ARAMAIO

# Familia batentzako etxebizitza eraiki dute Udalaren laguntzarekin

- Adindun-kontseiluak erabakitzen du zeinentzako izango den eraiki behar den etxea
- Osasun etxeak, joste tailerra eta bekadun-neskak dira Amsograren beste proiektuak

MIRYAM GALILEA | ARAMAIO

Badira hamabi urte Amsogra gobernuz kanpoko erakundekoak lanean hasi zirela Nikaraguako komunitateetan. Debagoieneko herri desberdinetako dirulaguntzak jasotzen dituzte beraien proiektuetarako; besteak beste, eta aurreko urtean lehenengo aldiz, Aramaioko Udalak etxe bat egiteko proiektuan parte hartu zuen; horren ondorioz, familia batek etxea dauka.

Izaskun Arriaran aramaioarrak Amsograrekin bidaiatu zuen Nikaraguara eta hitzaldi eta ikastaro batzuk eman zituen bertako erizain eskolan. Horren ostean, Aramaioko Udalarekin lanean hasi ziren elkartekoak, argazki erakusketa bat egon zen herrian eta egindako lanaren inguruko hitzaldi bat ere prestatu zuten; ekitaldi horiekin batera, etxe bat eraikitzeko proiektua aurkeztu zioten Udalari.

"Momentu hartan Udalak Euskal Fondoari ematen zion diru kopuru bat, besterik ez zegoelako, eta etxea eraikitzeko proiektua aurkeztu genienean 1.200 euro eman zizkiguten. Horiekin, Bideberrikoek emandakoari esker eta guk jarritakoa gehituz etxe bat eraiki dugu", dio Iñaki Agirianok, Amsograko lehendakariak.

Aramaioko Udalak eskainitako laguntzari esker, Blanca Lilian Perez Landerok eta Blas Lopez Vasquezek, euren umeekin batera, etxe berria dute orain. "Lursail guztiak Txorotera Komunitate Indigenarenak dira, Espainiako XVIII. mendeko monarkiak emandakoak, eta paper guztiak dituzte. Bada, beraien adindun-kontseiluak zeinentzat izango den etxea erabakitzen du, eta guk ez dugu horretan zer esanik", azaltzen du Inma Escribanok, Amsograko idazkariak.

Etxe bakoitzak 5.000 euro balio du, eraikuntza, komuna, ura eta argia lortzeko eguzki-plakak barne. "Haiei adobeko 2.000 bat adreilu egiteko eskatzen zaie, proiektuan inplikatzeko, eta horiekin etxea eta komuna eraikitzen ditugu. Etxeek 70 metro koadro dituzte, aterpea eta handik hamar metrora komuna. Hasieran aterperik gabe egiten genituen, baina eurite handiak egoten dira eta ondorengoetan jartzen hasi ginen; poliki-poliki hasierako etxeen akatsak ikusita, hurrengoak hobetzen joan gara", dio Agirianok. "Gu bizitzeko moduko etxeak eraikitzen ditugu, ez pobreentzako etxe pobreak".



Blanca L. Perez.



Blas Lopez.

Elkartearen filosofiaren barne, etxeak familiak bizi diren lekuan bertan eraikitzea dago. "Gobernuz kanpoko erakundeek, normalean, hiru edo lau etxe egiten dituztenean, elkarri atxikiak izaten dira, eta ez eurek erabakitako lekuan. Guk bertakoek erabakitzen duten lekuan egiten ditugu, euren nahia errespetatuz", dio Escribanok.



Blanca Lilian Perez eta Blas Lopezentzat (beheko argazkietan) eraikitako etxea. | AMSOGRA

ESANAK

**"Gureak bezalako etxeak dira, ez pobreentzakoak"**

IÑAKI AGIRIANO | LEHENDAKARIA

**"Erakundeen kooperazioarekin askoz hobeto egiten da lana"**

INMA ESCRIBANO | IDAZKARIA

**Lankidetza**

Nikaraguako Gobernua ere etxeak eraikitzen dabil eta leku horietara argia eramatea zein zaila den badakite; ondorioz, eguzki-plakak erabiltzen hasi dira. "Gobernuarekin dugun harremana nahiko ona da eta akordio batera iritsi gara: haiek eguzki-plakak jarriz gero, guk horietako hiru edo laurekin aurrezten dugun diruarekin beste etxe bat eraikiko dugu", dio lehendakariak.

"Ez du merezi erakunde bakoitzak bere kabuz lana egitea, guztion arteko kooperazioarekin askoz hobeto egiten baita; denon artean hobetzen saiatu behar dugu", dio Inma Escribanok.

**Beste proiektu batzuk**

Etxeak eraikitzeko proiektuarekin orain dela sei urte hasi ziren lanean, baina beste proiektu batzuetan ere badabiltza.

Bi osasun etxek medikua eta erizaina izatea lortu dute, eta hori bertako "Osakidetzarekin" adostu dute; "Osakidetzari" dirua eman eta euren zerrendetatik kontratatzen dute jendea.

Bestalde, joste tailerra ere badago; bertan, eskolatutako neskek josten ikasten dute. "Panpinak, diru-zorroak... egiten dituzte eta hemen saltzen ditugu", dio Agirianok. Eta bekadun-neskak daude; ikasketak burutzeko dirulaguntza jasotzen dutenak.

## Aurreko urtean jasotako laguntzak

Aramaioko Udalak emandako dirulaguntzaz gain, bailarako beste udal batzuek eta erakunde desberdinek ere dirulaguntzekin kolaboratzen dute Amsogra erakundearekin.

**BERGARA**

Bergarako Udalak 4.094,75 euroko dirulaguntza eman zuen. Horri esker, etxebizitza bat eraikitzeko aukera izan zuten.

**BIDEBERRI**

Bideberri mankomunitateak (Elgeta, Antzuola eta Leintz Gatzaga) 2.431,93 euroko laguntza eman zuen. Diru hori etxebizitza bat eraikitzeko erabili zuten.

**ARRASATE**

Arrasateko Udalaren laguntza 10.000 euro izan zen. Horri esker, osasun etxe batean erizaina eta medikua dute urte osorako, soldata eta medikamentuak barne. Joan den urtean zentro horretan 12.000 lagun artatu ziren. Arrasateko Udalak orain dela 7 urte ematen du dirulaguntza.

**BESTEAK**

Txagorritxuko %0'7 fondoarekin Ama-Etxea eraiki zuten (5.000 euro). Bestalde, SEPARek (Neumologia eta Zirugia Torazikoko Espainiako Elkartea) 1.400 euro eman zituen Ocotaleko erizain eskolako komunak eraikitzeko.

# Bidezko merkataritza iritsi da eskola eta fabriketara

## Arizmendi Ikastolarekin eta Fagor Arrasaterekin elkarlanean dihardu Harreman elkarteak

UBANE MADERA | ARRASATE

Arizmendiko 200 ikasletik gora bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua lantzen hasi dira, Arrasateko Harreman elkartearekin elkarlanean. "Joan den astean hasi ginen DBHko bigarren mailakoekin lantegiak egiten, eta batxilergora heltzeko nahia ere badugu. Elkarhezitzen elkartearekin elkarlanean gabiltzanez, Oñatin hasteko asmoa ere badugu", adierazi du Gorka Martinezek, Harreman bidezko merkataritzaren koordinatzaileak.

Tailerrak egiteaz gainera, ikasleokin inguruko azoketan parte hartuko dutela ere iragarri du Harremaneko ordezkariak: "Arrasateko baserritarren hirugarren zapatuko azokan bagaude; eta gura dugu ibarreko azoka nagusienetan parte hartu".

**Fabriketan ere bai**

Hori batetik. Izan ere, bestetik, gureko lantegietara bidezko merkataritzaren filosofia barreiatzen ere hasi da Harreman.

Dagoeneko Fagor Arrasaterekin lanean dihardute, "euren kafe makinetan guk inportatutako Cafe Solidario ipintzeko, eta apirilaren amaieran, Fagorren urteko batzarrera doazen bazkideei emango dizkieten otarretan, gure kafe eta txokolate solidarioak sartu dituzte", azaldu du Martinezek.

Kafe makinekin gauza bera egiteko Ederlanekin eta Ikerlanekin elkartuko direla kontatu du Martinezek, eta baita beste puntu batzuetara hedatuko direla ere: "Oñatiko Bidebarri vending enpresak eta Usurbilgo Euskovazza vending enpresak interesa dute gure kafea euren makinetan ipintzeko".

**Inportatzaile izango da**

Bukatzeko, Gorka Martinezek kontatu du Harremanek konpromisoa hartu duela Peru eta Ekuadorreko kooperatiba batzuekin kafe eta azukre solidarioak zuzenean inportatzeko.




Gorka Martinez, Harremanek Eroski hipermerkatuan duen dendan. | U.M.

### Kafea bai, baina solidarioa

Oñatiko Bidebarri eta Usurbilgo Euskovazza Vending enpresek euren makinetan Harremanek inportatutako Cafe Solidario sartuko dute. Horri esker, adibidez, Arrasateko Udaletxean, Aretxabaletako Institutuan eta Fagor Arrasateko makinetan kafe mota hori izango dute. Gainera, Fagorreko bazkideei kafe eta txokolate solidarioa emango diete apirilaren amaieran izango duten urteko batzarrean. Horrez gainera, Ederlan eta Ikerlaneko ordezkariekin ere elkartuko dira laster, bi fabrika horietan ere kafe solidarioa sartzeko.

### Irizpide sozialak eta ingurumenekoak

Ahalegin berezia egin gura du Harremanek bidezko merkataritzaren eta kontsumo arduratsuaren filosofia hedatzeko. "Jendeari helarazi behar zaio produktu bakoitzak historia jakina duela atzetik. Ez bakarrik herri pobreetatik datozen produktuek, baita hemengoek ere, baserrietakoek, adibidez. Hausnartu beharko genukeena da ze historia egon behar den produktu bakoitzaren atzetik", kontatu du Gorka Martinezek. "Gura dugu bultzatu merkataritza egiteko beste modu bat, batzuen benefizioak bakarrik aintzat hartu barik, ingurumen irizpideak eta irizpide sozialak aintzat hartzen dituena". Zazpi printzipiotan oinarritutako bidezko merkataritza da Harremanek aldarrikatzen duena. Printzipio ekonomikoak: soldata justua, aurrefinantzaketa (%50 ordaindu eskaera egiterakoan eta gainontzeko %50a entregatzerakoan) eta epe luzerako harremana mantentzea ekoizleekin; printzipio sozialak: lan baldintza duinak (haur zein nagusien esplotazio bakoa), genero berdintasuna eta parte-hartze demokratikoa; eta ingurumen printzipioa: ekoizpen ekologikoa.

# Tradizioari eutsiz, doke txapelketa izango da etzi

## Gazte mailakoaren ostean, orain helduen txanda da; elkarte arteko lehia 10:00etan jokatuko da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Antzinako tradizioari eutsiz, aurten ere doke txapelketak ez du hutsik egingo. Izan ere, Arrasaten historia duen jokorik badago, hori dokea da. Gure arbasoen antzinako jokoa, frogatuta dago Erdi Aroan, behintzat, gure ibarrean jokatzen zela. Ezin da esan gaur egun arrasatearrendako denbora-pasa erakargarriena denik, baina zaleek ez dute urteroko hitzorduan kalerik egiten.

Aurtengoa, 28. edizioa –garai berrietakoa, noski– etzi goizean jokatuko da. Juan Luis Arkauz SUDCeko presidentearen arabera, 15 bat elkarte espero dituzte; horrek esan gura du gutxienez 15 bikote egongo direla. 09:30ean zabalduko dute izen-ematea, eta 10:00etan hasiko da txapelketa. Elkarteen artetik irteten den bikote onenak Udaleko bi ordezkariren aurka jokatuko dute. Apustua, urterokoa: galtzen duenak, jokalariek eta gerturatzen diren herritarrek jango dituzten sardina erreak ordaindu beharko ditu.

**Iaz baino gaztetxo gutxiago**

Iaz ahalegin berezia egin zuten antolatzaileek gaztetxoak erakartzeko. Helburua lortu zuten, 16 bikote agertu ziren-eta. Hala ere, aurten berriro ere behera egin du parte-hartzeak: joan den zapatuan sei bikote bakarrik agertu ziren. Arkauzek, baina, maila ona egon zela adierazi du; hala erakusten zute bukaerako puntuazioek: 29-30 bukatu zuten lehen eta bigarren bikoteak eta 28-30 hirugarren eta laugarrenak. Gainera, behin baino gehiagotan erabili izan behar zuten zintazko metroa puntuak zeini eman erabakitzeko.



Zapatuan giro onean ibili ziren gaztexoak; etzi, helduen txanda. | U.M.

### BAZen eta Kulturaten ordutegi bereziak Aste Santua dela-eta

Biztanleen Arreta Zerbitzua itxita egongo da hilaren 5ean, 6an, 8an eta 9an. Hilaren 7an zabalik egongo da, 09:00etatik 13:00etara. Kulturate, berriz, hilaren 5etik 9ra itxita egongo da eta Pazko astean ordutegi berezia izango du: hain justu, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

### Zuberorako bisitan izena emateko epea hilaren 15era arte

AEDk maiatzaren 19 eta 20rako antolatu duen Zuberoa bisitatzeko izen-ematea hilaren 15era arte luzatu. Diotenez, zuberotarrekin egoteko eta hango historia, egoera sozialaren eta linguistikoaren berri izateko "aukera bikaina" eskainiko du irteerak. Argibide gehiagorako, 943 77 12 28.

## OHARRAK

**AUKEAREN OHARRAK**

Uarkape pilotalekuko ordutegia da: astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00 eta 16:00-21:00. Zapatuan, 09:00-13:00. Domekan itxita. Aste Santua dela-eta, itxita hilaren 5ean, 6an, 7an, 8an, 9an eta 14an.

Erreserba finkoak –Musakolako, Mojategi zein Iturripen– egiteko izen-ematea zabalik hilaren 20ra arte. Eskaerak Musakolako bulegoan aurkeztu behar dira. Bestalde, pilatesen hastapeneko ikastaro bat martxan jarriko dute hilaren 16an. Izena emateko ordutegiak dira: astelehen eta eguaztenetan, 09:15ean; eta martitzen eta eguenetan 15:00, 18:30 eta 20:30ean. Ikastaroaren prezioa: 17,88 euro da abonatuentzat; 28,88 euro ez abonatuentzat. Interesatuek Aukeako bulegoetan eman behar dute izena.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Xabier Amuritza eta Kepa Junkera, *Beti Bizi* lanaren aurkezpenean. | WWW.NEWSKEPAJUNKERACOM.BLOGSPOT.COM.ES

# Apirilaren 19an Kepa Junkera eta Xabier Amuritza gaztetxean

Musikari bilbotarrak eta bertsolariak Bizkaiko kopla zaharrak kantatuko dituzte Kooltur Ostegunak ekimenak antolatutako emanaldian

**ANDER MONEDERO** | ARRASATE

Kepa Junkera musikariak eta Xabier Amuritza bertsolariak *Beti Bizi* izeneko lana aurkeztuko dute hilaren 19an, eguena, Arrasateko gaztetxean. *Beti Bizi* lanak Bizkaiko 12 kopla zahar biltzen ditu eta euskal kultura, abesbatzen mundua eta musika elektronikoa uztartzen ditu. Xabier Amuritzak berreskuratutako eta Leioa Kantika Korala abesbatzak abesten dituen Bizkaiko koplak dira, Kepa Junkera musikariaren ukitu bereziarekin landutakoak.

Lan berri horrek iragana eta oraina uztartzen ditu, eta gaztetxekoa emanaldi berezia izango da; izan ere, Junkerarekin eta Amuritzarekin batera musikari bakar bat egongo da gaztetxeko oholtza gainean. Kooltur Ekintzak elkartearen esanetan, emanaldia ohikoa baino askoz ere intimoagoa izango da.

**Izate, hilaren 12an**

Kooltur Ostegunak ekimenaren hurrengo kontzertua apirilaren 12an izango da. Bertan, Donibane Ziburuko Izate taldea arituko da. Iparraldeko taldeak post-hardcorea lantzen du eta aurreko urtean kaleratu zuen *Gure negu hotzak* izeneko lana aurkezten dihardu.

# Ekitaldi ugari Liburuaren Eguna ospatzeko

Besteak beste, poesia emanaldiak eta ipuin kontaketak ere bai

**A.M.** | ARRASATE

Irakurketak gizartean eta pertsonen garapenean duen garrantzia nabarmentzeko asmoz, 1995. urtean, Unesco etxeak Liburuaren Nazioarteko Egun izendatu zuen apirilaren 23a. Irakurketa zaletasuna bultzatzeko eguna izendatu zenetik, liburutegiak bat egin izan du ekimenarekin, eta, hori ospatzeko, egitarau oparoa prestatu du.

Udal Liburutegiak, liburuaren egunerako bakarrik ez, apiril osorako ekintzak antolatu ditu: argazki erakusketa; musika eta poesia emanaldiak, haur eta helduentzako ipuin kontaketak... Liburuaren Asteko ekitaldiak apirilaren 17an Patxi Iturregik hasiko ditu *Haize kontra* izeneko literatura solasaldiarekin. Hurrengo egunean, Maite Frankok *Isilka misilka, isiltasunaren zaindaria* haurrentzako ipuin kontaketa egingo du. Hilaren 19an komiki solasaldia izango da eta 20an ipuin kontalariak izango dira Kulturaten: Mimi Barthelemy eta Alexis Diaz Pimienta.

**Argazki erakusketa**

Liburuaren Nazioarteko Egunean *El placer de leer* izeneko erakusketa zabalduko dute. Argazki bilduma horrek irakurzaletasunaren plazera erakustea du helburu eta maiatzaren 7ra arte egongo da ikusgai. Ekimena ixteko, hilaren 27an Iban Zalduak, Xabier Montoiak eta Ibon Rodriguezek emanaldia egingo dute eta apirilaren 29an musika eta poesia emanaldia egingo dute Alberto Urretxo eta Marion Desjacques musikariek.

## Maiatzaren hasieran jokatuko du igoera fasea Ford Mugarri taldeak

**A.M.** | ARRASATE

Domekan ligako azken partidua jokatu ostean, igoera fasea prestatzeko garaia da Ford Mugarri eskubaloi taldearentzat. Arrasatearrek denboraldi bikaina egin dute Ane Herreroren gidaritzapean; izan ere, ligan osoan partidu bakarra galdu dute.

Maiatzaren 4an, 5an eta 6ean jokatuko du talde arrasatearrak lehen nazionalera igotzeko txapelketa. Lau talde arituko dira lehen nazionalerako pasea lortzeko lehian, eta, lau horietatik, lehen sailkatuak bakarrik lortuko du mailaz igotzea. Bigarrenak, berriz, beste igoera fase bat jokatzeko aukera izango du. Ford Mugarriko jokalariek Aste Santu ostean jakingo dute zeintzuk izango diren igoera faseko aurkariak.

**Bitartean, Euskadiko Kopa**

Arrasateko eskubaloi taldeko jokalariak igoera fasea jokatuko zain dauden bitartean, Euskadiko Kopako txapelketa jokatuko dute. Kopa apirilaren 14an hasiko da, baina Ford Mugarrik lehenengo jardunaldian atsedenaldia izango du, eta hilaren 21an jokatuko du lehenengo partida. Eibar, Zumaiako Pulpo, Atez Ate Usurbil eta Elgoibar izango dira arrasatearren aurkariak.

## Eguraldiarengatik atzeratutako partidua jokatuko du Mondrak

Apirilaren 14an Mondrak Hondarribia hartuko du Mojategin. 20. jardunaldiko partidua izango da. Arrasatearrek hiru puntuak eskuratu behar dituzte mailari eutsi nahi badiote; izan ere, azken-aurreko postuan dago, eta, hurrengo zapatukoaren ostean, liga bukatzeko sei jardunaldi baino ez dira geratzen.

## MUk Bilbon jokatuko du La Salleren aurka apirilaren 14an

Josu Larreategiren mutilek ligako azkeneko lau partiduak irabazi dituzte, eta bosgarren garaipena jarraian lortzera joango dira apirilaren 14an. Aurten, aurreko urteekin alderatuta, askoz ere garestiago dago mailari eusteko lehia; izan ere, bederatzi taldeetatik hiruk bakarrik eutsiko diote kategoriari.



# Udal aurrekontua onartuta Gobernuko kideen botoekin

- Iazko aurrekontuarekiko, %4,8ko jaitsiera; inbertsioak %32,9 jaitsiko dira
- Oposizioko alderdiak, EAJ eta PSE-EE, Gobernuaren proposamenaren aurka

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Udal Gobernuko alderdiek, Bilduk eta Aralarrek, agintaldiko lehen aurrekontua onartu zuten egubakoitzeko ezohiko osoko bilkuran. 20,7 milioiko aurrekontua da onartutakoa, %4,8ko jaitsiera iazkoarekin alderatuz. Oposizioko alderdiak, EAJko zinegotziak eta PSE-EEko ordezkaria aurrekontuaren aurka azaldu ziren.

**Inbertsioen beherakada**

Aurrekontuan nabaria da inbertsioen beherakada, krisiak eraginda. Joan den urtean 2,8 milioi euro bideratu zituzten inbertsioetara eta aurten, berriz, 1,8 milioi euro aurreikusten dira, %32,9 gutxiago. Lauri Askargorta Ogasun batzordeko buruaren arabera, zenbait kapitulutan murrizketa garrantzitsuak egin behar izan dituzte, baina, aldi berean, Gizarte Zerbitzuen aurrekontuari eustea lortu dute. Aurrekontu osoaren %11,6 suposatzen du Gizarte Zerbitzuetara zuzendutako partidak. Inbertsioei dagokienez, besteak beste, Mekolaldeko zubi berriko irteera eta sarrera hobetzeko lanak (Diputazioarekin batera finantzatuko dira), igerilekuan arazketa hobetzea eta Ozaeta eta Angiozar bitarteko urbanizazioa aurreikusten dituzte. Askargortak aurreratu zuenez, inbertsioei diruzaintzako soberakinekin egin ahal izango diete aurre.

**Diru sarrera gutxiago**

Bestalde, diru sarrerei dagokienez, Diputazioaren fondoetatik 0,7 milioi euro gutxiago ingresatzea aurreikusi dute eta hirigintza zergek ere 0,54 milioi euroko gutxitzea ekarriko du. Azkenik, zorpetze mailari dagokionez, %8,27 (10,1 milioi) da; joan den urtekoa %9,31 (11 milioi) izan zen.

### AURREKONTU PROPOSAMENA, ARLOKA

| GASTUAK | 2011 | 2012 | ALDEA (%) |
|---|---|---|---|
| Pertsonal gastuak | 7.075.210 | 7.184.875 | 1,5 |
| Ondasun arruntak | 7.114.672 | 7.138.727 | 0,3 |
| Interesak | 269.101 | 248.101 | –7,8 |
| Transferentzia arruntak | 2.586.586 | 2.185.766 | –15,5 |
| Gastu arruntak | 17.045.569 | 16.757.469 | –1,7 |
| Inbertsioak | 2.809.624 | 1.885.520 | –32,9 |
| Kapital transferentziak | 550.320 | 596.047 | 8,3 |
| Finantza aktiboak | 34.570 | 30.100 | –12,9 |
| Finantza pasiboak | 1.398.350 | 1.512.400 | 8,2 |
| Kapital gastuak | 4.792.864 | 4.024.067 | –16,0 |
| **Guztira** | **21.838.433** | **20.781.536** | **-4,8** |

OHARRA: BEHIN BETIKO ONARPENAREN AURRETIK AURREKONTUA JENDEAURREAN EGONGO DA IKUSGAI 15 EGUNETAN. ITURRIA: UDALA.

**LAURI ASKARGORTA**
BILDU, OGASUN ZINEGOTZIA

**"Aurrekontuaren exekuzioaren kontrol zorrotza egingo dugu"**

"Aurrekontuak burutzea oso lan mingarria izan da, zenbait arlotan jaitsiera garrantzitsuak egin behar izan ditugulako. Aurrekontuaren exekuzioaren kontrol zorrotza eramateko, hilero, kontu-hartzaileak exekuzioaren egoera bidaliko du batzorde bakoitzera. Plan Estrategikoa dela eta, urbanoa sustatu, Zero Zabor filosofia aplikatu eta enplegua bultzatzeko ahalegin berezia egin dugu".

**AINTZANE OIARBIDE**
EAJ

**"Gobernuak ez daki nola egin aurre Udaleko ekonomia egoerari"**

"Krisi egoera honetan Gobernuaren partetik erantzukizuna eta ekintza plan zorrotza espero genuen Udal barruko gastuak gutxitzeko. Ez da ikusten krisia gestionatzeko gaitasunik. Zerbitzu orokorrak %8 igoko dira eta pertsonal gastuak, %5. Zaborren gaiarekin gertatzen den moduan, inolako bideragarritasun planik gabe defizitarioa izango den atez atekoa ezarri nahi dute".

**MARI KARMEN BARRENETXEA**
PSE-EE

**"Austeritate kontzeptuaren kontrako aurrekontuak dira"**

"Erantzukizunez eta koherentziaz jokatze aldera eman dugu kontrako botoa: Austeritate kontzeptuaren kontrako aurrekontuak dira, lanpostuak sortzeko inolako neurririk aurreikusten ez dutenak eta herritarren interesen alde egiten ez dutenak. Pertsonal gastuak oso handia izaten jarraitzen du –%1,8–, nahiz eta soldatak izoztu egin diren".

## OHARRAK

**HAURRENDAKO UR JARDUERAK**

Sei hilabete eta 4 urte bitarteko haurrendako ur jarduerak antolatu dituzte Agorrosinen. Ikastaroa apirilaren 21ean hasiko da eta ordura arte plaza libreak betetzeko aukera eskaintzen dute. Argibide gehiago Agorrosin kirolgunean, 943 77 70 95 telefonoan jaso ditzakezue.

**TURISMO BULEGOA ZABALIK ASTE SANTUAN**

Aste Santuko denboraldiari begira, Turismo Bulegoa zabaldu zuten egubakoitzean udaletxeko sarreran eta apirilaren 15era arte izango da zabalik. Ohikoa denez, bisita gidatuak antolatuko dituzte datozen egunotan. Argibide guztiak 943 77 91 28 telefono zenbakian.

**PAZKOETARAKO KARTEL LEHIAKETA DEITU DUTE**

Bergarako Udalak aurtengo Mendekoste jaietako egitarau ofizialeko azala ilustratzeko kartel lehiaketa deitu du. Teknika librea erabili ahal izango da, baina *Pentekoste Jaiak 2012 Bergara* testua azaltzea derrigorrezkoa da. Irabazleak 400 euro jasoko ditu. Lanak kultura etxean aurkeztu behar dira apirilaren 24ko 13:00ak baino lehen. Argibideak kultura etxean edo 943 77 91 58 telefonoan jaso ditzakezue.

**LOGROÑORA IRTEERA SAN JOXEPE ELKARTEAREKIN**

San Joxepe erretiratuen elkarteak Logroñora irteera iragarri du apirilaren 24rako. Bergaratik 08:30ean aterako dira eta bazkal aurretik Iregua bailaran zehar ibiliko dira. Argibideak 943 76 21 40 telefono zenbakian.

**POL-POLEKO BETERANOEN IRTEERA HILAREN 15EAN**

Pol-Pol Mendizale Taldeko beteranoek irteera iragarri dute apirilaren 15erako. Egun osoko irteera izango da, ondoko ibilbidearekin: Anda-Oteros-Subijana. Autobusa 08:00etan aterako da frontoitik. Txartelak Pol-Poleko bulegoan. Argibideak 943 76 48 51 telefono zenbakian.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

disdira
ile-apaindegia edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Ura aurrezteko kanpaina abian jarri dute Agorrosinen. | E.M.

# Agorrosin itxita hurrengo astean, garbiketa lanengatik

## Jai eguneko ordutegia izango da Aste Santuan, eguerdian instalazioak itxi egingo dituztelarik

E.M. | BERGARA
Agorrosin Kirolgunea itxi egingo dute hurrengo astean, apirilaren 10etik 15era (biak barne), garbiketa lanak direla eta. Azken urteotan Pazko astea aprobetxatu izan dute Osasun Sailak behartutako garbiketa lanak egin ahal izateko. Beraz, sei egunez itxita izango dira kirolguneko instalazioak. Oporren bueltan, apirilaren 16an zabaldu dute berriz, ohiko ordutegiarekin.

**Ordutegi berezia Aste Santuan**
Era berean, Aste Santuan ordutegi berezia izango dute Agorrosinen; horrela, eguenean (hilaren 5ean), egubakoitzean, domekan eta astelehenean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da kirolgunea zabalik eta zapatuan, berriz, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

**Ura aurrezteko kanpaina**
Bestalde, azken asteotan ura aurrezteko kanpaina abian jarri dute Agorrosin Kirolgunean. Dutxetan karteltxoak eskegi dituzte, erabilera bakoitzeko bost ur litro kontsumitzen direla ohartaraziz igerilekuko, gimnasioko zein spa guneko erabiltzaileei. Ura aurrezteko beharraz kontzientzia piztea da kanpainaren helburu nagusia, ahal den neurrian behinik behin ur kontsumoak behera egiteko.

Agorrosin Kirolgunea 2006ko irailean inauguratu zuten, eta, azken datuen arabera, 4.000 erabiltzaile inguru dauzka.

NIRE USTEZ

JOSE ANGEL MIKEO



# Udalerriak sobran

Zorioneko defizita dela eta, murrizketak egin nahian, kudeaketa ona eta arduratsua gauzatzeko bideak ezarri beharrean, gastua "ustez" sortzen duten erakundeak kentzeko proposamena ere egin da: udalerriak batu eta udaletxeak gutxitu.

Gu bezala, "udaletxe gabeko herrian" (baina bai udalerri baten) bizi garenok gertutik ezagutzen dugu zein zaila den hain gertuko erakunde batek uler eta kudea ditzan herritarren gogo eta ongizate nahiak.

Zein da orduan proposatzen dena? Zein da udaletxe edo udalerriei buruz islatzen den irudia halako proposamenekin? Nire ustez, ez behintzat herritarren zerbitzurako edo herritarren partaidetza bultzatuko duen erakunde batena. Gehiago iruditzen zait enpresa baten irudia dagoela atzetik eta ez elkarbizitzarako sortutako erakunde politiko (bere zentzu originalean harturik) batena.

Udaletxeak, kontzejuak, gutxitu egin beharrean gehitu egin beharko genituzke, herritarrek euren iritzia emateko aukera gertu-gertuan izan dezaten, eta ez urrun. Zerbitzuak mankomuna daitezke eraginkorrak izateko, baina herrigintza non gauzatu behar da? Norberaren inguru hurbilean ala gero eta handiagoak diren eremuetan?, izaera eta nortasun txikienak desagerraraziz eta izena eta izana ere ukatuz ez dut uste herrigintzarik egingo denik.

Komunitate txikiek badute zer esana eta ekarpenak egiteko gogoa XXI. mende honetan. Ea asmatzen dugun.

# Realeko gazte mailako nazioarteko txapelketako bi partidu jokatuko dira zapatuan Agorrosinen

E.M. | BERGARA
Realak Aste Santuan antolatzen ohi duen gazte mailako nazioarteko futbol txapelketaren barruan, bi partidu jokatuko dira oraingo zapatuan, apirilaren 7an, Agorrosinen. Gipuzkoako konbinatua eta Espanyol izango dira aurrez aurre, lehenbizi, 16:00etan eta jarraian, 17:30ean, Celtak eta Olympiakos greziarrek neurtuko dituzte indarrak.

Aurtengoa txapelketaren 28. ekitaldia da eta aipatutako taldeekin batera Valencia, Osasuna, Los Angeles Galaxy eta Reala dira gonbidatutako taldeak. Launa taldeko bi multzotan banatu dituzte taldeak. Debagoienean, Bergaran bakarrik izango dira partiduak. Azkoitian beste bi partidu jokatuko dira zapatuan bertan eta Azpeitian igandean, Bergaran jarritako ordutegi berean. Ohi bezala, finala astelehenean jokatuko da: hirugarren posturako partidua 11:00etan izango da eta finala 12:00etan, biak ere Zubietan.


Griezmann izan da gazte mailako futbol torneotik igarotako bat.

**Gabonetako saskia, zain**
Bergara Kirol Elkartekoek Gabonetan zozketatutako saskiak ez du oraindik jaberik. Bere garaian ez zen saritutako txartelaren jabea azaldu, eta, beraz, zapatuan berriro egingo dute zozketa bi lotetan. Partidurako sarrerak 7 eurotan jarriko dituzte salgai.

## Bizikasik eta Miguel Altuna institutuak hainbat ikastaro iragarri dituzte datozen asteotarako

Bizikasik bi ikastaro iragarri ditu: *Jendaurrean nola hitz egin* (apirilaren 24an hasita) eta *Ipuin kontaketa tailerra* (apirilaren 25etik aurrera). Argibideak kultura etxean, 943 77 91 58 telefonoan. Bestalde, Miguel Altunan langile eta langabeei zuzendutako ikastaroak antolatu dituzte. %100ean diruz lagundutako ikastaroak dira:. Argibideak 943 76 70 49 telefono zenbakian.

## Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren borondatezko epea, maiatzaren 31ra arte zabalik

Urtero legez, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2012. urteko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte dago zabalik. Egun horretatik aurrera errekarguarekin eskatuko da. Udalak jakitera eman duenez, helbideratutako erreziboak maiatzaren 31n kargatuko dira kontu korrontean. Edozein argibidetarako udaletxera, 943 77 91 64 telefono zenbakira, jo dezakezue.

## Gaztetxoei zuzendutako Udaleku Musikalak ekainaren 25etik uztailaren 6ra, Musika Eskolarekin

Musika Eskolak Udaleku Musikalak iragarri ditu uda sasoirako. Musikaren mundu zoragarria ezagutu, ulertu eta bizi izateko helburuarekin, ekainaren 25tik uztailaren 6ra hainbat ekitaldi izango dira. 1999tik 2007ra bitartean jaiotako neska-mutilei zuzendutakoak dira eta izen-ematea apirilaren 26ra arte dago zabalik. Argibideak Musika Eskolan, 943 76 57 80 telefonoan.

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

JOXAN ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29




Bergarako igerilariek Oñatikoekin batera dihardute aurten. | GOIENA

# Euskal Herriko Itzuliak eragina izango du herrian

Aparkaleku gutxiago, kale mozketak, autobus geltoki aldaketak... egongo dira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Euskal Herriko Itzuliak festa giroa ekarriko duela Oñatira ez du inork zalantzan ipintzen. Baina, txirrindulari tropelak bestelako eragina izango duela herrian ere ez: aparkaleku gutxiago, kaleak moztuta, autobus geltoki aldaketak... Aldaketa horiek guztiak batzen dituen bandoa ipini du Udalak eragina sufrituko duten bebarrutan.

Egubakoitzean Euskadi etorbideko 6 zenbakiaren parean bukatuko da etapa; eta zapatuko erlojupekoa Kale Zaharrean hasi eta Foru plazan bukatuko da. Hori horrela, egun horietan aparkaleku gutxiago egongo dira herriko hainbat kale eta gunetan (ikus ondoko taula). Hilaren 5ean, 6an eta 7an, autoak utzi ahal izango dira, ETEO zaharrean, Natra Zahor enpresaren inguruetan, Berezao industrialdean, Ulma Handling enpresan (hilerrian), Olaiturrin, anbulatorioko aparkalekuan eta kiroldegiko lurrazpiko parkingean.

### Zirkulazioa etenda

Bestalde, herriko zirkulazioa hainbat unetan gelditu egin beharko dute: hilaren 6an, 15:45ean eta 17:15ean Euskadi etorbidean; eta hilaren 7an, 13:45ean Kale Zaharrean, eta 17:30ean Foru plazan. Egun horretan, Olabarrieta eta San Prudentzio arteko zirkulazioa moztuta egongo da 13:00etatik lasterketa bukatu arte. Oñatitik irten eta sartzeko bide bakarra Udana izango da.

### Autobus geltokia lekuz aldatu

Bestalde, hilaren 6an eta 7an, Euskadi etorbideko autobus geltokia Bidaurretako biribilgunera aldatuko dute: hilaren 6an 14:00etatik aurrera, eta hilaren 7an 18:00etatik aurrera. Gainera, egun horretan, 13:00etatik 18:00etara arte, autobus zerbitzua eten egingo dute.

Euskal Herriko Itzuliak eragina izango du zapatu goizeko azokan: Santa Marinako azokan egoten diren saltzaileak ez dira Oñatira etorriko eta plazan egoten direnek lehenago amaitu beharko dute euren salmenta.

Azkenik, ziklistak pasa behar diren kaleetan hainbat konponketa egin dituzte: zuloak estali, abiadura murrizteko elementuak eta kautxuzko arekak kendu...

## APARKATZEA DEBEKATUTA

**Apirilak 5, 15:00etatik aurrera:**
- Santa Marina 2-4 atzealdean.
- Kurtzebide kalean.

**Apirilak 6, 12:00-20:00:**
- Aita Lizarralden.
- Euskadi etorbideko bi aldeetan.
- Kurtzebidetik kultura etxera.
- Kurtzebidetik Apaolaza kalera.
- Moiua kalea: Urbia taberna pareko aparkalekuen bi aldeak eta Maibi dendaraino.
- Patrue kalea.

**Apirilak 7, 08:00-19:00:**
- Euskadi etorbidea.
- Lizaur kaleko bi aldeak.
- Enpresagintzako aparkaleku osoa.
- Cegasako aparkaleku osoa.
- Agustindarren aurreko plazatxoa.
- Kale Zaharretik Kanpantxora arte.
- La Caixa aurrealdean.
- Foru plazako aparkalekua.
- San Lorentzo 62-67koen atzealdea.
- Errekalde, eskolatik behera.

## Askotariko elizkizunak egingo dituzte eliza eta monasterioetan, bihar hasita

M.B. | OÑATI

Aste Santuan askotariko elizkizunak egingo dituzte, bihartik domekara arte.

Eliza katolikoak urteko garai garrantzitsuena ospatzen du asteon –Gabonekin batera–, eta herriko elizatan, auzoetako ermitatan eta monasterioetan elizkizunak egingo dituzte: Eguen Santutik Pazko Domekara.

### Bihar eta etzi, gehien

Datozen egunetako elizkizun gehienak bihar eta etzi artean ospatuko dituzte. Bihar Ordu Santua egingo dute herriko eliza handienetan eta etzi, egubakoitza, gurutze-bidea elizetan eta auzoetako ermitetan. Domekako ospakizunak hiru lekutan egingo dira: Santa Anan, Beneditarretan monasterioan eta parrokian.

## ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

| | APIRILAK 5 | APIRILAK 5 | APIRILAK 6 | APIRILAK 7 | APIRILAK 8 | APIRILAK 9 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **EGUEN SANTUA** | **ORDU SANTUA** | **GURUTZE-BIDEA** | **EGUBAKOITZ SANTUA** | **ZAPATU SANTUA** | **PAZKO DOMEKA** |
| Santa Ana | 19:00 | 21:00 Gurtza | | 19:00 | 21:30 | 10:00 |
| Beneditarren eliza | 18:00 | 22:00 | - | 18:00 | 21:00 | - |
| Agustindarrak | 19:30 | - | 20:00 | 18:00 | 20:30 | - |
| Parrokia | 18:00 | 21:00 Gurtza | 09:00 | 18:30 | 21:30 | 12:00 |
| Bidaurreta | 18:30 | 21:00 Gurtza | 19:30 | 17:00 | 21:30 | 10:00 |
| S. Martin | 16:00 | - | - | 16:00 | - | - |
| Uribarri | - | - | 09:00 | - | - | - |
| Olabarrieta | - | - | 11:00 | - | - | - |
| Zubillaga | - | - | 11:00 | - | - | - |
| Koizkar | 18:00 Jaunaren afaria | - | - | - | - | - |

## Janari-manipulatzaileendako autokontrolaren gaineko bi ikastaro egingo ditu Elkolabek

Elkolab enpresak janari-manipulatzaileendako ikastaro bi egingo ditu hilaren 19an. Hain zuzen ere, autokontrolaren gainean jardungo dute. Arrisku handiko janari-manipulatzaileendako eta ostalaritza sektorekoendako ikastaroa da, eta bi ordutegi ezberdinetan emango dute: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Interesatuek 943 53 33 03 telefonora deitu beharko dute, izena emateko edo informazioa eskatzeko.

## Argia moztuko dute San Lorentzoko hainbat bebarrutan hilaren 13an eta 20an, gauez

San Lorentzoko transformazio zentroan berritzeak egiteko, bi egunean moztuko dute argia; hain justu ere, hilaren 13an eta 20an. Hilaren 13an (12tik 13rako gauean) argia kenduko dute 00:00etatik 07:00etara arte, San Lorentzoko 1etik 31ra, 41ean (ermita) eta argiteria publikoan. Bestalde, hilaren 20an (19tik 20rako gauean) argia kenduko dute 00:00etatik 07:00etara arte, San Lorentzoko 1etik 40ra, 41ean (ermita), 42tik 45era, 47tik 58ra, 60tik 67ra eta argiteria publikoan.

## Udalekuetako begiraleendako izen-emate epea hilaren 10etik 21era arte izango da

M.B. | OÑATI

Milakolore udalekuetan begirale moduan parte hartu gura dutenek hilaren 10etik 21era eman beharko dute izena Oñatiko Udaleko erregistroan. Aurkeztu beharko duten dokumentazioa izango da: eskaera orria, EGA edo baliokidea eta NAren ,tituluaren eta merezimenduak egiaztatzeko agirien fotokopiak.

### Prestakuntza saioak

Irizpideak kontuan hartuta puntuak banatuko dituzte. Kontratazioa egiteko kontuan hartuko dituzte: titulazioa, ikasketak, prestakuntza-ikastaroak, euskara, lan-esperientzia eta Oñatin erroldatua egotea, hurrenkera horretan. Begiraleek prestakuntza saioak egingo dituzte maiatzaren 19an eta 26an, eta ekainaren 30ean.

## Arizterrazura irteera antolatu du Lizargarate Trikitizale Elkarteak

M.B. | OÑATI

Lizargarate Trikitizale Elkarteak Arizterrazura irteera antolatu du hilaren 29rako. Interesatuek Urbia eta Umerez tabernatan eros ditzakete txartelak 18 eurotan. Autobusa 15:30ean irtengo da geltokitik Oriora. Han trikiti eta panderoekin alaitutako kalejira egingo dute, eta 18:30ean Arizterrazuko erromerian izango dira. Afaldu han bertan egin ondoren, 01:00etan Oñatira itzultzeko autobusa hartuko dute.

### Aiako Andatza auzoan

Arizterrazu Aiako Andatza auzoan dago, eta oso ezaguna da trikiti erromeriak antolatzen dituelako domeka arratsaldeilunkaretan, udaberritik udara arte.

## ZUZENKETA

Joan den asteko Oñatiko orrialdean, Herrira taldearen aurkezpen ekitaldia 13:30ean zela idatzi genuen albiste baten. Bada, ekitaldia 13:00etan izan zen. Lerro hauen bidez barkamena eskatzen diegu ekitaldiaren antolatzaileei, eta baita herritarrei, sortutako eragozpenengatik.

# Kulturaren gainean hausnartzeko, 'Herriketan' parte-hartze prozesua jarriko du abian Udalak

M.A. | ARETXABALETA

Kultur jarduna aztertu eta zehazteko *Herriketan* parte-hartze prozesua jarri gura du abian Kultura Sailak. Herriko erakunde eta taldeetako ordezkariekin eta eragile eta herritarrekin egin gura du hausnarketa hori eta lehen batzarra apirilaren 19an izango da (18:00) Arkupen.

"Urtean zehar Aretxabaletan egingo ditugun ekintza, jai eta ospakizunetan herrikideok izan behar dugu ardatz, eta horretarako, beharrezkoa dugu antolakuntzan ere parte hartzea", dio Zigor Quintanilla kultura zinegotziak. Hilaren 19koa lehenengo batzarra izango da eta Udalak dituen asmoen berri emango dute; era berean, herritarren iritziak, kezkak eta ekarpenak jaso gura dituzte. Hala, honako galderak eta beste hainbat erantzuten saiatuko direla diote: zein hutsune igarri dituzu kulturan? Zer hobetuko zenuke? Nolako dinamika sortu beharko genuke elkarlanerako eta herrikideok kulturan ardatz izan gaitezen?...

Bide batez gogorarazi dute kulturaren gaineko edozelako zalantzak izanez gero Arkupe kultura etxeko zuzendaritzara jotzeko –943 08 10 01 edo *kultura@aretxabaleta.net*–.

## Isurietara gurutze-bidea eta beste elizkizun asko Aste Santuan

Leintz pastoral barrutiko kideek otoitzaldi eta elizkizun asko iragarri dituzte egunotarako. Bihar, esaterako, bakarkako aitortzak izango dira parrokian (11:00) eta azken afariko eukaristiak bi elizetan (18:00, monasterioan eta 19:00, parrokian). Egubakoitz-Santuan Isurietara gurutze-bidea egingo dute parrokiatik irtenda (11:00); eta arratsaldean elizkizunak (16:00, monasterioan eta 17:00, parrokian). Eta zapatuan, pazko gaubeilak izango dira bi elizetan (21:00). Horiez gain beste hainbat otoitzaldi egingo dituzte.

## ATXABALTA LEHIAKETA

**Hartu parte eta irabazi hainbat sari !** Loramendi

**17.** Zeri esaten zaio Aretxabaletan zordanbidea?

**16.** Zein ez da sinonimoa?
a) takian potian b) sarri c) lantzian behin d) sarritan

**Erantzunak eta zure datuak** (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaletako 96 posta-kutxa edo *lehiaketatxabalta@gmail.com*.

17:________________________ 18:____
Izen-abizenak:____________________ Tel.:________
**Azken eguna: apirilaren 23a.**

**Aurreko galderen erantzunak:**
**15:** Elizari urtero entregatu behar izaten zitzaion jeneroa edo dirua: bildutakoaren hamarrena.
**16: c)** Ipurtarin.


Saritu guztiak elkarrekin ekitaldi bukaeran. | M.A.

# Loramendiren lehiaketa: ipuinak eta bertsoak nagusi

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

24. literatura lehiaketako sariak banatu ditu Loramendik. 8 eta 16 urte arteko ikasleen lanak jaso dituzte eta horien artean gaztetxoenek egindako ipuinak eta bertsoak nagusi: "Epaimahaiko kideek lan benetan zaila izan dute", zioten. DBHko ikasleen lanak, ostera, urriagoak izan dira.

Eneritz Urrutia Loramendiko presidenteak eta Ana Bolinaga alkateak banatu zizkieten sariak. Hona irabazleak: Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. mailakoen artean: Ipuinetan: 1. Oier Zumarraga; 2. Uxue Uribetxebarria; eta 3. Iker Arias. Bertsotan: 1. Magali Armendariz; 2. Amaia Uribetxeberria; 3. Rafael Dasilva. 5 eta 6. mailakoen artean: Ipuinetan: 1. Eneko Mateos; 2. Xabi Zuazabeitia; 3. Enara Seiler; eta bertsotan: 1. Joanes Sarasua; 2. Ohiana Arana; eta 3. Julen Agirregabiria.

DBHko 1. eta 2. mailakoen artean sarituak: Sentimenduzko gutunetan: 1. Beñat Abasolo; eta 2. Ane Zuloaga. Bertsotan: 1. Ixak Sarasua. Komikietan: 1. Oier Baldon; eta 2. Itziar Unanue. Eta DBHko 3. eta 4. mailakoen artean: Sentimenduzko gutunetan: 1. Ainhoa Gonzalez eta Miren Zubillaga; eta 2. Maialen Gay eta Nerea Barriocanal; eta umorezko film laburretan, Jon Iriondo eta Asier Gonzalez.

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen jada giro!

Gurea TABERNA
Lotoak eta kinielak
Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



hemen jada giro!

IOSU taberna harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



URBALTZ TABERNA
URBALTZ taberna
Mitarte 21 behea • 943 79 79 79 •ARETXABALETA

# Jose Enekotegi izango da Olazarko presidentea

Iazko balorazioa eta zuzendaritza aldatzeko batzarra egon zen egubakoitzean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aldaketak daude Olazar erretiratuen elkartean. Egubakoitzean egindako urteko batzarrean, besteak beste, zuzendaritza batzordea aldatzea erabaki zuten horretan parte hartu zuten 37 bazkideek; denera, 645 bazkide ditu gaur egun Olazarrek. Jose Enegotegik ordezkatuko du hemendik aurrera Txomin Azpitarte presidentea. Jose Juan Zubizarretak, ostera, presidenteordearen kargua hartuko du; Leo Herrera idazkaritzaz arduratuko da eta Jasone Orbegozok diruzaina izaten jarraituko du. Lau bokal ere izango ditu zuzendaritza berriak: hain justu, Jose Luis Landa, Ana Jesus Navaridas, Elias Gomez eta Maria Jesus Uribe.

Batzar berean, joan den urteko ikasturteari buruzko balorazioa egin zuen irtetear dagoen zuzendaritzak. Pozik azaldu ziren partaideak, kontuak "ondo" irten direlako; elkarteak 52.000 euroko sarrerak izan zituen eta gastuak, ostera, 51.000 euro izan ziren. Hortaz, 1.000 euroko superabitarekin amaitu zuten urtea.

### Egueneko bingoa

Gastuei dagokionez, azaldu zuten sukalde zerbitzuak 600 euroko defizita izan zuela; denera, urte osoan, 140 zerbitzu eskaini zirela ere jakinarazi zuten. Horretan gas naturala sartu eta segurtasun neurriak jartzeko asmoari buruz, ere egin zuten berba. Atzerapenarekin bada ere, hori egiteko asmoa dagoela esan zuten. Bestalde, nabarmendu nahi izan zuten urte osoan antolatutako ikastaroetan oso lagun gutxik parte hartu zutela; zortzi eta hamar lagun artean. Antolatzen diren bidaietarako autobusa betetzea ere oso zaila dela adierazi zuten. Harrera onena duten ekitaldiak iraileko bazkaria, sanpedroetako merienda eta astero eguenetan egiten den bingoa direla aipatu zuten.

### Olazarrendako himnoa

Aurten egitekoak diren ekintzen gainean, elkarteak aurten 25 urte betetzen dituela eta, horren harira, antolatutako ekintzak nabarmendu zituzten: ekainaren 14an egingo den bazkaria eta Juan Carlos Irizar Olazar elkarterako egiten dabilen himnoa. Bada, horretaz eta beste hainbat ekintzaz arduratuko da zuzendaritza berria.

# Hilaren 20ra arte ikus daitezke margo lehiaketara aurkeztutako lanak museoan

Mendaroko Antton Urreistik irabazi zuen domekan egindako lehiaketa

M.B. | ESKORIATZA

Joan den domekan egindako Eskoriatzako Aire Libreko VI. Margo Lehiaketako irabazle Antton Urreisti eta gainerako parte-hartzaileen lanak ikus daitezke egunotan Ibarraundi museoan. Aste Santuko egunotan itxita egongo da museoa; baina apirilaren 10etik 20era bitartean honako ordutegian bisitatu ahal izango da astelehenetik egubakoitzera: 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.


Parte-hartzaile bat Ibarraundi museoko ingurunean. | JULIO CALLEJA

### 20 parte-hartzaile

Aurtengo lehiaketan 20 margolarik parte hartu dute: hain justu ere, 16 urtetik beherako bederatzi neska-mutiko eta 11 heldu. Joan den urteko parte-hartzaile kopuruak zertxobait behera egin badu ere [2011n 26 artista aurkeztu ziren], "kalitate handiko" lanak jaso zituztela azpimarratu dute epaimahaiko kideek. Ibilbide luzea duten lau margolarik osatu zuten epaimahai hori.

Herriguneko txoko esanguratsuak aukeratu zituzten parte-hartzaile gehienek, hala nola plaza, Jose Arana eta Gaztañadui kaleak, eta baita Ibarraundi museoa ere.

Mendarora joan zen lehen saria: hango Antton Urreistik lortu zituen lehen sariko 500 euroak. Bigarren, Astrabuduako Jose Migel Arranz izan zen, eta hirugarren, ostera, Leioako Piedad Santamaria. Arranzek 250 euro irabazi zituen eta Santamariak, ostera, 150 euro. Gaztetxoen sailean, Laura Martin eskoriatzarrak irabazi zuen; bigarren Sara Zurututza eta hirugarren Maite Martin eskoriatzarrak izan ziren. Hirurek pintatzeko materiala jaso zuten sari moduan.

### Apirilaren 23tik lanak jaso

Esan bezala, hilaren 20era arte egongo da horren gaineko erakusketa zabalik; Udaletik jakinarazi dute apirilaren 23tik maiatzaren 29ra bitartean margolanak jaso ahal izango dituztela margolariek. Horren harira, ohartarazi dute epe horretan jasotzen ez diren lanak antolatzaileen esku geratuko direla.

# Rafa Rueda Inkernun izango da hilaren 13an

M.B. | ESKORIATZA

Musikan ibilbide luzea duen bizkaitarra izango da hilaren 13an, egubakoitza, Inkernu tabernan. Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, Rafa Rueda mungiarrak kontzertu akustikoa eskainiko du. Emanaldia 22:30ean hasiko da, eta sarrera debalde izango da.

Kaleratutako azken lana aurkeztuko du pop-rock arloko euskal abeslariak eta gitarrajoleak; hain justu, *Enaren geometria* izenekoa. Dena dela, *Kea* (2003), *Saredun eskua* (2006) eta *Zuhaitz okerrenetan gora noa* (2008) diskoetako kantuak ere entzun ahal izango dira Inkernun.


Rafa Rueda. | JOSEBA BARRENETXEA

## OHARRAK

**ARETO FUTBOLA**
Hilaren 14an, areto futboleko partidua dago herriko kiroldegian. 17:00etan, Eskoriatza eta Adava lehiatuko dira lehenengo erregionalean.

**HERRIXA DANTZAN**
Apirilean ere *Herrixa dantzan* egingo dute Eskoriatzan. Hilaren 15ean izango da Patxi Monterok gidatutako dantzaldi irekia, unibertsitatean. Besteak beste, sokan, taldean edo bikoteka dantza egiteko aukera izango du parte hartu gura duen edozeinek. Betiko moduan, debalde izango da horretarako sarrera.

**ARANTXA IREGI ALKATE**
Beñat Herce alkatea ordezkatzen ari da martxoaren 30a ezkero Arantxa Iregi lehenengo alkateordea. Hilaren 15era arte jardungo du horretan.

# Lehenengo hiruhileko ur hornikuntza ordaindu behar da

M.B. | ESKORIATZA

Dagoeneko zabalik dago aurtengo lehen hiruhilekoari dagokion estolderia eta ur hornikuntza tasa ordaintzeko epea. Ekainaren 4ra arte egongo da zerga borondatez ordaintzeko epea, ohiko aurrezki kutxa edo banketxeen bidez. Horren harira, Udaletik gogorarazi dute aipatutako epean zorrak ordaintzen ez badira, prozedura exekutibotik eskatuko direla, eta horiei premiamenduzko errekargua, berandutza interesak, eta sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkiela.

Horrez gainera, azaldu dute maiatzaren 1era arte egongo dela estolderia eta ur hornikuntza tasen errolda jendaurrean.

## NIRE USTEZ


TXOMIN AZPITARTE

# Bi urte Olazar elkartearekin

Esperientzia berria zen. 2010ean eskoriatzarren %15 ordezkatzen duen elkarteko presidente izendatu ninduten. Egunerokotasuna atseginagoa egiten laguntzea zen asmoa. Bi urteko ibilbidea hasi genuen. Batzuendako motza da, baina zehazten diren helburuen arabera biziak izan daiteke. Aurreko erretiroagatik berria eta semearen atxiloketagatik gogorra ere bazen niretako bizitza.

Askotariko ekintzekin bete dugu denbora. Gazteenak adinduak lagundu ditzaten ere saiatu gara, belaunaldiak bilduz. Ez dakit helburua lortu dugun, krisia eta beldurrak hor daude, baina kosta egiten da jendea egiten diren ekintzetan parte hartzera animatzea. Askotariko taldea gara, eta ez da samurra izaten guztien beharrak asetzea. Pausua eman dugu, zaharren egoitzako patronoen batzordean sartuta eta han bizi direnei laguntzen. Nagusilan ere lanean hasi da.

Bestalde, garrantzitsua da talde isolatua ez izatea eta gainerakoekin esperientziak elkartrukatzea. Aliziaren ipuineko bizitza bereganatzearen aldekoa naiz. Baina adinduek mundu erreala ikusten dugu, ispiluaren alde zuzenetik. Hortaz, garrantzitsua da esperientziak elkartrukatzea, hain konplexua den gizartean bizimodua errealagoa eta alaiagoa izan dadin.

Orain arteko zuzendaritza taldeak egindako lanarekin pozik nago, bereziki guztien hobe beharrez egindakoarekin; pozik nago, aldi berean, aitaita izan naizelako, bizitzako errealitate politenetakoa.

Olazarren gauza gehiago egiteko aukera izan dugula uste dut; tartean, guztiek edo gehienek gaitasunak mantendu ditzaten motibatzea eta laguntza behar dutenei laguntzea. Hori ukatzea fikziozko ispiluaren aldean jartzea suposatuko luke. Guzti hori dela-eta, elkartearen 25. urteurrena den honetan, elkartean sartzear dagoen zuzendaritza berriari bazkide guztiek eskertutako aldia izan dezala opa diot.

**"Zuzendaritza taldeak egindako lanarekin pozik nago"**

**Nagore Igartza** | Argazkilaria

# "Argazkilaritzak bizi dugun egunerokoan geldiunea egitera gonbidatzen nau"


Igartzak *Barneko lurraldea* argazki erakusketa ikusgai du Donostian. | N. IGARTZA

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Bergarako Aroztegin ezagutu genituen Nagore Igartza antzuolarraren lanak. Orain, *Barneko lurraldea* argazki bilduma Artetzu galerian, Donostian, duzue ikusgai maiatzaren 2ra arte.

**Zer da argazkilaritza zuretzako?**
Nire barnetik, intimitatetik inguruarekin erlazionatzeko modu bat da argazkilaritza. Modu azkarrean bizi dugun egunerokotasunean gelditzera gonbidatzen nau argazkigintzak, ingurua ezagutzen laguntzen dit, behatzera. Cartier Bresson argazkilari famatuak bazuen gustuko dudan definizio bat: "Argazkilaritza burua, begia eta bihotza ardatz berean jartzea da".

**Zelako argazkiak egiten dituzu?**
Nire irudiak ikusgarri eta ikusezin denaren artean kokatzen dira. Sinpletasunez eraikitako irudietatik, espazioaz, hutsuneaz, isiltasunaz... hitz egiten dut. Iradokigarri diren argazki irudien alde egiten dut erlazio intimo, unibertsal eta poetikoa azalduta.

**Nolakoa da *Barneko lurraldea*?**
Ikusleak 18 argazkik osatzen duten serie bat topatuko du. Argazki hauek ez dute mundua definitu nahi, pixkanaka erakutsi baizik. Proiektu honetako irudiak abstrakzio eta figurazio artean kokatzen dira, ikusgarri eta ikusezin denaren artean. Zalantzazko eta iradokigarri bihurtzen diren argazki hauetako paisaiak izate misteriotsua ematen dio argazkiko une bakoitzari. Eta horrela, gure irudimen, dedukzio, uste eta fantasia martxan jartzen dugu gure *Barneko lurralde* propioa sortuz eta honi esker gu geu ezagutuz.

**Noizko zure lanak herrian?**
Orain esku artean dudan proiektu berria bukatzean saiatuko naiz inguruko aretoren batean argazkiak erakusten.

**Bartzelonako lehiaketa ezagun bat ere irabazi zenuen.**
2006ko VI. Grand Marina argazki sarietan, accesit edo aipamen bat izan nuen. Orain dela bi urte Farrerako arte zentrotik (Lleida) sormenerako beka bat jaso nuen. Hilabetez zentroan egon nintzen, dena ordainduta, nire sormen lanean murgilduta, luxu hutsa.

> **"Argazkilaritza burua, begia eta bihotza ardatz berean jartzea da"**

***Hauxe duzu azala. Orain pentsatu, sentitu, barneratu....zer dagoen haratago. Bere itxura hau bada, nolakoa behar du errealitateak?***
Zuk erantzun beharko zenioke galdera honi. Nire ustez, errealitate ezberdinak dira bakoitzak bizi dituenak; bakoitzak erlazio intimo hori bilatu behar duenaren aldekoa; bere irudi propioa sortu behar duela uste dut.

**Zein da egunen baten atera nahiko zenukeen argazkia?**
Hiroshi Sugimoto argazkilariak oso gertuko sentitzen ditudan irudiak lantzen ditu. Badu Theater deitzen den seriea, oso gustukoa dudana. Ameriketako Estatu Batuetako zinema aretoak eta auto-zinemak erretratatzen ditu. Argazkiaren esposizio iraupena filmaren proiekzio osoa da. Horrela, pelikula guztiaren argazkia lortzen du eta erakusgelaren arkitektura pantailaren argiarekin islatuta azaltzen da. Eta esposizio luze horien bidez, denbora maneiatzeko duen modu horrekin, bat-bateko argazki kontzeptuarekin kontrajartzen da.


Batzarkide berriak mahaiaren bueltan eserita. | ARROLA MENDI TALDEA

# Arrolak batzarkide berriak ditu

## Gazteak erakarri eta animatu gura dituzte irteeretan parte hartzera

M.A | ANTZUOLA

2011ko batzarreko akta irakurri eta onartzearekin batera, helburuak eta erabakiak ere finkatu ditu Arrolak urteko batzar orokorrean. Hala, helburua jendea eta batez ere gazteak erakartzea dute. "Pirinioetako irteera izaten da jendetsuena. Egia esan, ordurako gazteak oporretan daude eta posible dute irteera egitea, bestela ikasten daude-eta.

Urte berri egunekoa ere nahiko arrakastatsua da, batzuk elkarrekin igotzen gara Arrolara eta gero hamarretakoa egitera eta beste batzuk beraien kontura etortzen dira txorizo eta salda hartzera giro ederra egoten da", azaldu digu Nerea Ruiz mendi taldeko kideak. "Gu saiatzen gara kartelen bidez iragartzen, komunikabideak erabiltzen... baina zaila dago. Gazteak animatu eta erakarri nahi ditugu". Hala, irteerei dagokienez, irizpide batzuk ezarri zituzten batzarrean. "Kontuan hartzen da Arrolako bazkide diren edo ez; eta erosotasuna eskaini nahi diegu ahalik eta pertsona gehien joan dadin irteeretara. Garrantzia ematen diogu irteerak antolatzeari; beti ere diru poltsa baldin badago". Ekintzak antolatzerako orduan, herritarren parte-hartzea bultzatu gura dute. Horretarako, *arrolamt@gmail.com* helbidera nahi dutenek ekarpenak egin ditzakete. Bestalde, aipatu, irteeren argazkiak ikusgai dituela herritarren blogak atalean. arri", gaineratu digu.

### 2012rako ekintzak

Maiatzean, Iparraldera irteera egingo dute; ekainean Udana -Korosti-Arrrola-Koroso-Antzuola ibilaldia; uztailean Pirinioetako irteera Hiru Erregeen mahaia ingurura; irailean, finalista eguna egingo dute; urrian, Karakatetik Antzuolarainoko mendi irteera. Urriaren 27an eta 28an argazkilaritza ikastaroa egingo da Benito Canteroren eskutik.

### Kide berriak

Batzarkide izateari utziko diote Iker Mansok, Migel Angel Lizarraldek, Juan Antonio Iturbek, Joseba Iparragirrek eta Nerea Ruizek. Bigarren urtez jardungo dute: Ander Murgiondo, Juan Carlos Gomez eta Hodei Aranguren izango dira. Kide berriak hauek izango dira: Mari Pi Laskurain, Deiane Zubikarai, Ibon Urzelai eta Imanole Lagorburu.

# 'Patxiko Txerren', ipuingitza martxan da

M.A | ANTZUOLA

Liburuaren Eguna hilaren 23an ospatuko da; horren harira, *Patxiko Txerren* ipuingintza saioa izango da. Lehen mailatik seigarren mailara arteko gaztetxoek dagoeneko erabili dute euren imaginazioa eta egindako ipuinak aurkeztu dituzte. Hala, ipuingitza landuz, maila bakoitzeko lan onenak aukeratuko dituzte apirilaren 22ko jaialdian, 19:00etan, Torresoroan. *APIKA* ipuin kontalarien saioa izango da aurretik; ondoren, aukeratutako lanak sarituko dituzte. Lan guztiak batu, eta koadernatu egingo dituzte, liburuxka formatua emanda. Liburutegian eta eskolan izango dira kopiak guztien eskura irakurgai.

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

MUJIKA
HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA



Julen Arriolabengoa, *Herrira* taldea aurkezten, Sastiña ermitan. | ARAMAIOKO HERRIRA

# 'Herrira' taldea: "Jendea baikor agertu da egitasmoarekin, laguntzeko gertu"

Joan den egubakoitzean egin zuten aurkezpena, Herriko plazan: Aramaiorako funtzionamendua zehazteko herritarrek ekarpenak egin ahalko dituzte

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Joan den egubakoitzean, martxoko Azken Ostirala aprobetxatuz, aurkeztu zuten Aramaioko *Herrira* taldea. 30 bat lagun elkartu ziren Herriko plazan egin zen aurkezpenean. Amaieran, nola ez, mokadutxoa egiteko aukera egon zen, giro ederrean.

*Herrira* taldearen Euskal Herri mailako helburuak gogora ekartzeaz gain, Aramaiorako funtzionamendua zehaztu ahal izateko herritarrei ekarpena egiteko bideak zeintzuk diren azaldu zitzaizkien: "Jendea baikor agertu da egitasmoarekin, laguntzeko gertu. Aurrera begira parte-hartze bideak zehaztu ziren aurkezpenean", azaldu dute. Ondorengo bide hauek eskaini zaizkie herritarrei euren ekarpena egin dezaten: e-posta bidez –*aramaixokoherrira@gmail.com*–, udaletxe azpian *Aramaixoko Herrira* jartzen duen postontzian edo hileroko Azken Ostirala deritzon elkarretaratzean. Azken helburua, antolatzaileek aditzera eman dutenez, "euskal preso eta iheslari guztiak herrira ekartzea" da, eta lehentasuna larriki gaixorik dauden presoei emango diote.

### Aulkia, aldarrikapenaren irudi

*Herrira*-ren irudia aulkia da, aldarrikapenaren sinbolo: "Aulki larregi daude hutsik Euskal Herrian. Azken aulkia bete arte, azken presoa etxera ekarri arte, Aramaioko *Herrira* taldeak lanean jarraituko du", diote antolatzaileek. Aulki hori *Herrira* taldeak antolatuko dituen ekintza guztietan presente egongo da.

# Udal zerbitzuen ordutegi berezia Aste Santuan

**J.B.** | ARAMAIO

Aste Santuko oporraldiak direla-eta udal zerbitzuen ordutegien gainean galdetu dugu.

Udaletxea itxita egongo da hilaren 5etik 9ra eta Pazko astean ohiko ordutegian egingo dute lan. Hau da, martitzenetik egubakoitzera goizez –09:00etatik 14:30era– eta eguaztenean goiz zein arratsaldez –09:00etatik 14:30era eta 16:30etik 18:30era.

Udal Liburutegia eta ludoteka, bestalde, itxita egongo dira Aste Santuan eta Pazko astean. Hori bai, domekan zinema zerbitzua egongo dela jakinarazi du Olga Jauregi arduradunak.

### Kiroldegia zabalik

Amaitzeko, kiroldegia egutegian gorriz markatuta dauden egunetan bakarrik itxiko dute. Hau da, eguenean, egubakoitzean eta astelehenean bakarrik itxiko dira kiroldegiko ateak. Zapatuan, hilak 7, 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta domekan, hilak 8, 09:00etatik 13:00etara.

Pazko astean aramaioarrek ohiko ordutegian erabili ahalko dute kiroldegia, hots, 17:00etatik 21:00etara.

Azkenik, osasun zentroan urtero moduan egingo dute lan. Hilaren 5, 6, 7, 8 eta 9an itxita egongo da eta Pazko astean, berriz, zabalik ohiko ordutegian.

## 'Limitadua' norena den erabakitzeko 'pikea', gazte asanbladen artean

Otxandioko udaberriko festaren barruan ekintza berezia antolatu dute Otxandion. Aramaioko eta Otxandioko gazte asanbladen artean *limitadua* urtebetez norena den erabakitzeko *pikea* egingo dute apirilaren 21ean.

Egitaraua oraindik erabat zehaztu barik dagoen arren, asmoa da Orixolen elkartzea –"lurralde neutroan", antolatzaileen arabera– eta bertatik Otxandiora jaistea. Bazkaldu aurretik zenbait joko egingo dituzte Otxandio eta Aramaio arteko *limitadua* 2012an zehar norena izango den erabakitzeko. Egun osoko egitaraua prestatu dute.

## Bilboko itsas museoa bisitatzeko aukera, Zuiako Koadrilari esker

Zuiako Koadrilak irteera interesgarria antolatu du apirilaren 21erako. Egun horretan Bilboko Itsasadarra itsas museoa bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute irteerarekin bat egiten dutenek. Museoa oso handia da, bi espaziotan garatzen ditu erakusketak: barruko erakusketa, 3.500 metro koadro dituena, eta kanpokoa, 20.000 metro koadrokoa.

Izena emateko modurik errazena da 945 430 167 telefono zenbakira deitzea; zenbaki horretan emango dira argibide guztiak. Hori bai, interesdunek adi ibiliko beharko dute, izena emateko azken eguna apirilaren 12a da-eta.

## TXALOAK ETA TXISTUAK




JOKIN BEREZIARTUA

# Herriko Plazarako sarrera itxita

Herriko Plaza inguruan bizi den herritar batek kexa adierazi du, goiko argazkian ikusten den plazarako sarrera autoendako itxita dagoelako. Bizilagun horrek Ibargoia kaleko sarrera ixtea proposatzen du. Udaleko ordezkariek, baina, azaldu dute sarrera hori itxi dutela zirkulazioa txikitu, segurtasuna bermatu eta oinezkoei lehentasuna emateko.



J.B.

# Memoria historikoa kantu zaharren bidez lantzen

Txirritola euskara elkarteak antolatuta, Julen Arriolabengoa hizkuntzalari aramaioarrak hitzaldia eskaini zuen astelehenean kultur etxean. *Memoria historikoa kantu zaharretan* izenburupean, Arriolabengoak XVI. mendea baino lehenagoko abestiak aztertu zituen entzuleekin batera, batez ere Aramaio eta inguruko herriekin zerikusia dutenak. Besteak beste, Arrasateko erreketari buruzko (1448) Ibarguen-Cachopin egilearen kantuak edota Aramaioko bertso zaharrak ikertu zituzten. 20 bat lagun gerturatu ziren eta gehiengoa jende edadetua izan arren, zenbait gaztek ere bat egin zuten Txirritolaren hitzorduarekin.

ELGETA



Elgetan badaude konpostagailuak; gehiago ipintzea da mankomunitatearen helburua. | L.Z.

# Elgetarrei ere etxean konposta egiteko deia

Konpostagailuak doan banatuko dituzte, eta ikastaroak ere eskainiko dituzte

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurreko astean izan dugu Elgetan *Hondakin gutxiago, ongizate gehiago* izeneko erakusketa ikusgai. Sortzen dugun hondakin kopurua txikitu aldera etxean bertan konposta egiteko deia luzatzen du orain Debagoieneko mankomunitateak.

Etxean konpostagailua ipintzeko lurzoro bat behar da, eta noski, konposta egiten ikastea baina erraza da. Hondakin organikoak dira konpostagailura bota behar direnak.

Orain arteko kanpainetan etxean konpostagailua ipintzeak ez zuen etekin ekonomikorik ekartzen. Aurrerantzean, ordea, etxean konposta egiten duten debagoiendarrek beherapena izango dute zaborraren tasan.

**Zaborren kuota merkeago**

"Bilketa zerbitzura gehitzen ez diren hondakinek gasturik sortzen ez dutenez, autokonpostatzea egiten edo egingo duzuenok bonifikazioa izango duzue zuen zaborren tasetan", adierazi dute mankomunitatetik.

Bonifikazioaz gain, autokonpostatzeko konpromisoa hartzen dutenei konpostatzea zertan datzan eta nola egiten den azaltzeko ikastaroa, konpostatzeko gida, konpostagailua, eta hondakinak batzeko eta garraiatzeko edukiontzi bana jasoko dituzte doan.

**Konpostagailua eskatzeko**

Etxean edo auzokideen artean konpostagailua ipini nahi izanez gero eskaera bideratu behar da mankomunitatera. Eskaera-orria *www.debagoiena.com/Ingurumena/Autokonposta* helbidean aurkituko duzue. Beste aukera da mankomunitatera deitzea; 943 79 33 99 zenbakira, hain zuzen ere.

## Euskal Herriko Itzulia aurten hirutan Elgetatik

Gaur, eguaztena, Kanpanzartik eta Karabietatik etorriko da; barikuan, Angiozartik iritsiko zaigu

L.Z. | ELGETA

Txirrindularitza gustuko dutenek Euskal Herriko Itzulia bertatik bertara ikusteko aukera izango dute gaur, eguaztena eta etzi, barikua. Gaurko etapa —itzuliko hirugarrena— bitan pasako da Elgetatik; 14:39 bueltan Asentzion behera etorriko da tropela eta Ubera aldera egingo du. Ordubete geroago, 15:22 aldera, Karabietan izango ditugu atzera ere txirrindulariak. Elgetara jaitsi, eta Elorrio aldera hartuko dute.

**Barikuan Angiozartik gora**

Bosgarren eta azken aurreko etapa izango da, eta litekeena da ikusteko unerik aproposena izatea. Txirrindulariak Angiozarren gora etorriko dira Asentziora 16:27 bueltan. Kanpanzar aldera egingo dute.

IV. FRONTENIS TXAPELKETA

### Aste bukaera honetan partidurik ez

Aurrera doa Elgetako IV. Frontenis Txapelketa. Aste bukaera honetan, baina, atseden hartuko dute bai gizonezkoen txapelketa bai txapelketa mistoan.

Bi jardunaldi gelditzen dira sailkapen tanda amaitzeko. Horiek eginda txapelketa bakoitzeko launa bikotek lortuko dute finalerdietarako txartela.

Hurrengo jardunaldia, beraz, apirilaren 13an, 14an eta 15ean jokatuko dute.

AZKEN JARDUNALDIKO EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Oskar Sarasua-Xanti Dosuna | 25-08 |
| Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi | 25-19 |
| Iban Retolaza-Xabier Ubera / Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga | 25-08 |
| Idoia Serna-Asier Osoro / Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo | 25-06 |
| Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Iune Dosuna-Xanti Dosuna | 25-08 |

OHARRAK

**ZERO ZABOR ASTEKO EKINTZA ELGETAN**

Debagoieneko Zero Zabor taldeak Zero Zabor Astea antolatu du apirilaren 16tik 22ra. Elgetari dagokionean *Errausketari ateak ixten* dokumentala emango dute kultura etxean apirilaren 19an, eguena. Emanaldia 19:00etan hasiko da.

**PEOI BAT BEHAR DUTE UDALETXEAN**

Udalak peoi bat kontratatuko du hiru hilabeterako. Langilearen egitekoak belarra moztea, bide-garbiketa lanak egitea, eta hiri-altzari berriak jartzea izango dira. Izena-emateko azken eguna apirilaren 20a da, 13:00etan. Udaletxera jo behar da.



JULIO CALLEJA

### Zortzi lagun lubakiak garbitzen

Zapatu goiza lubakien gunea txukuntzen aritu zen herritar talde bat. Zortzi lagun elkartu ziren Udalak garbitze-lanak auzolanean egiteko deiari erantzunez; erdia Udaleko langileak edo zinegotziak. Besteak beste, apurtutako zakuak aldatzen aritu ziren. Domekan, apirilak 8, egingo dute hurrengo bisita gidatua ibilbide tematikora. Interesatuek izena eman behar dute; 943 79 64 63 edo 943 71 89 11.

LEINTZ GATZAGA

## Apirilaren 13an, egubakoitza, dute erretiratuek batzar orokorra

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 13an, egubakoitza, egingo dute Toki Eder elkarteko erretiratuek urteko batzarra. Elkartean izango da (17:00) eta batzarraren ondoren mokadutxoa eskainiko diete elkartutakoei.

Martxoan egin izan dute batzar orokorra erretiratuek, baina aurten atzeratu egin dute egun batzuek. Dagoeneko jakinaren gainean daude elkarteko bazkide diren 40 bat erretiratuak, eta bertaratzeko gonbidapena ere laster jasoko dute.

Iazko diru kontuen eta egindakoen berri emango diete lehenengo zuzendaritzako kideek, eta ondoren aurtengo asmoak iragarri. Diru-laguntza murrizketak izango dituztela aurreratu dute eta hori kontuan hartuta antolatu beharko dituztela ekitaldiak. Urtean bi irteera egin izan dituzte: udaberrian, maiatz inguruan, kostaldera; eta udazkenean, urri aldera, Nafarroara. Batzarrean udaberriko irteera hori antolatzen hasiko dira.

Bestalde, zuzendaritzako kide batzuek hainbat urte daramatzate batzordean, tartean Pedro Mari Elkorobarrutia presidenteak; hala ere, ez dute espero ordezkatzeko boluntariorik agertzerik.

### Mikel Gonzalez Antxia berriro ere alkate egun batzuetan

Eugenio Otsoa alkatearen behin-behineko aldentze batengatik Mikel Gonzalez Antxiak hartu ditu berriro haren ardurak. Iazko ekainetik aurtengo urtarrila artean –Otsoa Mexikon zegoen bitartean lan kontuengatik– berak bete zuen alkate funtzioa, eta, oraingoan, apirilaren 11ra arte hartu ditu alkatearen ardurak.

### Bihar eta etzi 17:30ean izango dira parrokiako elizkizunak

Aste Santuko elizkizunak izango dira egunotan San Milixan parrokian, Martin Mendizabal fraideak gidatuta: bihar, Eguen Santua (17:30), azken afariko eukaristia izango dute eta etzi, Egubakoitz Santua, Jaunaren nekaldiko elizkizuna. Domekan, ostera, ohiko ordutegian esango du meza nagusia (12:30).



Debabarrena eta Kanpanzar-Harrobiak taldeetako ziklistak, ibilbidea errepasatzen hasi aurretik. | XABIER URTZELAI

TXIRRINDULARITZA

# Oñatiko erlojupekoa, ziklista ausartendako

## Aitor Umerez oñatiarrak gidatuta, bailarako ziklistekin errepasatu dugu zapatuko erlojupekoa

**XABIER URTZELAI** | OÑATI

Lerro hauek irakurri orduko Euskal Herriko Itzuliko hirugarren etapako irabazlea ezagutuko dugu, eta, poliki-poliki, bidean geratzen joango dira zapatuko erlojupekoan arriskatzeko erabakia hartuko dutenen ziklisten zerrenda.

Izan ere, berba hori da Oñatiko ibilbidea bailarako txirrindulariekin errepasatu ostean erabil genezakeen aproposena, arriskatzearena; izan ere, Oñatin denbora onena egiten duenak erakutsiko du pedal-kolpe indartsua duen ziklista baino gehiago dela; bizikleta gainean trebea, eta egun horretan, behintzat, ausart jokatzea erabaki duena. Teknikoa, zaleendako ikusgarria, ederra –eguraldiak laguntzen badu ez da egongo Oñati *saltzeko* modu hoberik– eta baita arriskutsua ere. Berba horiek erabili dituzte ibilbidea bertatik bertara ikusi dutenek.

Ez da espezialistendako erlojupekoa izango, edo ez eurei mugatutakoa bakarrik. Ziklista horiek abantaila hartuko dute Oñatitik Zubillagara egin beharreko joan-etorrian, baina lehenengo kilometroak malda gogorretan ondo moldatzen diren eta bizikleta gainean teknikoki trebeak diren txirrindulariendako aproposak dira, baita azkenak ere: "Samuel Sanchezendako aproposa da erlojupeko hau", diosku Cancellararen erorikoaren ostean etxean pare bat egunez atseden hartu eta domekan Paris-Roubaix lasterketako irteera puntuan egongo den Markel Irizarrek. Hark bai, hark nahiko harbide izango du asteburuan –baina horiek beste kontu batzuk dira.

Irizarrek berak onartu digu Oñatiko ibilbidea ez dela beretako aproposena, eta Bidelan taldeko kirol zuzendari Jon Odriozolak uste du oso konpentsatua dagoela: "Denondako moduko erlojupekoa da. Bi zati ezberdinduko nituzke argi. Hasieran eta amaieran *Samu* moduko ziklista teknikoek abantaila izango dute, baina Errekaldetik jaitsi eta Zubillagarainoko tartean benetako espezialistek garapen handiekin egin ahal izango dute lan, horregatik diot konpentsatuta dagoela".

Askok parekatu dute Oñatiko erlojupekoa 2007an *Samu*-k Oiartzunen irabazi zuenarekin. Sasoi hura ondo gogoan du Odriozolak, talde laranjako kirol zuzendari zen-eta orduan: "Baina ibilbide hura oraingoa baino aproposagoa zen *Samu*-rendako, bide estuagoak zirelako, eta euria egin zuen, gainera. Zapatuan ikusi egin beharko da Zubillagarako tartean denborarik galtzen duen".

**Bailarako ziklistekin**

Oñatiko erlojupekoa errepasatzeko ibarreko Kanpanzar-Harrobiak eta Debabarrena taldeetako ziklisten laguntza izan dugu guk, eta zer hoberik herriko bazterrak ederto ezagutzen dituen Oñatiko ziklista gazte bati jarraitzea baino, Aitor Umerezek egin ditu-eta gidari lanak.

Kale Zaharrean hasi eta San Anton kalearen ostean datorren malda gogorrean denak harrituta, eta tartean dabiltza ibilbidea errepasatzen talderen bateko ordezkariak, autoan. Lehenengo jaitsiera ez da makala, porlanezkoa, kurba itxi batekin. Errekalde auzora jaitsi eta berriro ere gora, Larrañarantz; zelai ikusgarriak daude tarte horretan. Oñatitik Zubillagara dator tramu azkarra, bizikletan ondo kokatu eta pinoiak behera, espezialisten txanda. Zubillagatik bueltan, Etxe-Aundi parean eskumara hartu eta malda gogor eta paraje eder gehiago. Garagaltzatik hilerrirako jaitsiera ez da brometarako, eta handik zuzen, erdigunera.

**DATUA**

**18,9**

KILOMETRO

Erlojupekoak ia 19 kilometro izango ditu; hasiera eta amaiera gogorra izango du.



4.

**Garagaltzara igoera.** Azken igoera gogorra, 15. kilometroan.

5.

**Hilerrirako jaitsiera.** Jaitsiera azkarra, 16. kilometroan.



**MIKEL ARISTI**
TXIRRINDULARIA

"Oso polita iruditu zait, ikusgarria, baina baita arriskutsua ere, ziklistendako konpromiso handiko erlojupekoa. Arriskatzen dunak denbora irabaziko du, baina, eroriz gero, pikutara joan daiteke denboraldia".



**MARKEL IRIZAR**
TXIRRINDULARIA

"Denbora ona egiteko garrantzi handia izango du material egokia aukeratzeak, garapenak...". Zaleendako erlojupeko ederra izango da, baina ziklistendako egun konplikatua, seguru. Arriskutsua ere bada".



**JON ODRIOZOLA**
BIDELANEKO ZUZENDARIA

"Erlojupeko berezia izango da, ezberdina. Bide estuak, harbidea, tarte teknikoak... Italian eta Suitzan jartzen dituzten erlojupekoen antza izango du, eta, eguraldiak laguntzen badu, Oñati ikusgarri ikusiko dugu".



**ENEKO LIZARRALDE**
TXIRRINDULARIA

"Oso gogorra iruditu zait. Daukadan zalantza da aurrean dabiltzanek benetan arriskatuko duten edo ez. Izan ere, Tourra buruan daukatenek ez dakit zenbateraino arriskatu nahi izango duten erlojupeko horretan".



**ALEX ARANBURU**
TXIRRINDULARIA

"Egun gogoangarria izango dela uste dut, igoera gogorrak, jaitsiera teknikoak... ikusgarria, nahiz eta arriskutsua ere izan daitekeen, batez ere euria egiten badu. Harbideko igoeran sufritu egingo dute".

# Erlojupekoaren ibilbidea




**San Anton kalean.** Zumeltzegira bidean, harbidean.

**Torretxebarrirantz.** Porlanezko igoera, lehen kilometroan.

**Saihesbidean.** Zubillagara bidean, 7. kilometroan.



**IBAN VELASCO**
TXIRRINDULARIA

"Ikusleendako oso erlojupeko polita izango da, baina lehiatzeko... zaila. Malda asko ditu, motzak, baina gogorrak, bihurgune asko... Egia da azken erlojupeko horretan aurre-aurrean dabiltzanek baino ez dutela arriskatuko".



**JON RIVERO**
TXIRRINDULARIA

"Oso-oso ikusgarria iruditu zait, oso polita, baina egia da txirrindulariendako arriskutsua izan daitekeela. Ikuskizun aldetik, ederra. Tarte batzuetan ez dakit erlojupeko bizikletekin zelan moldatuko diren".



**AITOR UMEREZ**
TXIRRINDULARIA

"Ez da erlojupeko ohikoa, baina azken urteotan Euskal Herriko Itzulian halakoak jartzen dituzte. Oiartzunen jarri zutenaren antza du, bide estuak, igoera gogorrak, jaitsieretan kurba itxiak. Euria egiten badu, arriskutsua".



**HODEI OROBENGOA**
TXIRRINDULARIA

"Hasieratik egiten dute gora, modu ikusgarrian, gainera, eta ikusleendako oso polita dela uste dut; guk gozatu egingo dugu, behintzat. Amaierako azken aldapa aukeratuko nuke lasterketa ikusteko, orduko ukituta etorriko dira".

FUTBOLA

## Pazko osteko asteburuan, atzeratutako partiduak

X.U. | ARRASATE

Aste Santuan futbol jokalari guztiek ez dute atseden hartuko: batetik, Realeko gazte mailako torneoa jokatuko dute Bergaran, Agorrosinen [ikus 12. orria]; eta bestetik, Mondrako emakumezkoek sailkapenean laugarren dagoen San Juan taldearen kontra jokatuko dute Eguen Santuan (12:00etan, Mojategin).

Ohorezko erregionalean, berriz, Pazko asteko asteburuan jokatuko dituzte otsailean elurragatik atzeratu zituzten norgehiagokak. Mondrak hil edo biziko partidua jokatuko du Hondarribiaren kontra eta Aloñak Pasaia hartuko du. Aretxabaletak ere etxean jokatuko du, Elgoibarren kontra, eta Bergara da kanpora joango dena, mahoneroek Urolaren zelaian jokatuko dute-eta.



Mondrako neskak. | GOIENA

BORROKA ARTEA

## Espainiako Kenpo Txapelketara ibarreko hiru ordezkari

Apirilaren 14an egingo duten Espainiako Kenpo Txapelketan lehiatuko dira Iker Letona, Josu Letona eta Karla Zabala. Konbate modalitatean hartuko dute esku, pisu astunen kategorian: "Lehia handia izango da, batez ere Andaluzia aldean jende asko egoten delako kategoria horretan", adierazi digu Iker Letonak.

TXIRRINDULARITZA

## Urtzi Mugurutza antzuolarrak hirugarren garaipena

Sumofic-Igartua taldeko Urtzi Mugurutza txirrindulariak bolada ikusgarria darama, asteburuan lortu duelako, jarraian, denboraldiko hirugarren garaipena. Elgoibarko helmugara ia 60 laguneko taldea iritsi zen, eta Antzuolakoa izan zen guztien artean azkarrena, esprint ikusgarrian. Aurrekoak Eibarren eta Beasainen irabazi zituen.

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
*http://merkatua.net/argiplastik*

**ION LEIHOAK**
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
Faxa: 943 773 120
*http://www.ventaion.com*

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Azken emaitza, film luzea

▸ Ikus-entzunezko Komunikazioko 4. urteko ikasleek sei film labur egin dituzte

▸ Seiek gai berbera dute, eta, oporren bueltan, denak film luze bakarrean josiko dituzte

**LEIRE KORTABARRIA** | ESKORIATZA

Ikasleak dira oraindik, baina zinemako profesionalak moduan dabiltza jo eta su lanean. Izan ere, Huhezi fakultateko Ikus-entzunezko Komunikazioko azken urteko ikasleak sei film labur egiten dabiltza. Oporretan daude orain, lanaren zati handi bat eginda, filmak eurak grabatuta; oporretatik bueltan, haiek editatzea, forma ematea geldituko da, oraindik ere lan handia. Proiektu horren berezitasuna hauxe da: film labur guztiekin film luzea egingo dutela.

Ez da nolanahiko proiektua; haien irakasle eta arduradun Aitor Arregi oñatiarrak hauxe esan zuen Goiena *Magazinea*-n: "Beste leku batzuetan egin da horrelakorik, baina Euskal Herrian, nik dakidala, lehenengo aldia da".

Arregi bidelagun izan dute, baina irakasleak berak azpimarratzen duenez, "ikasleak dira protagonistak" eta lanaren egile eta arduradunak.

### Gai unibertsala

Sei film labur horiek Debagoienean eta kanpoan filmatu dituzte. Joan den astean, adibidez, Eskoriatzako zaharren egoitzan ibili ziren, eta hantxe zeuden ere euskal zinemagintza eta telebistako aurpegi ezagunak: Loli Astoreka, Jose Ramon Soroiz eta Piter Antsorena. Izan ere, horixe da proiektuaren beste berezitasun bat: euskal aktore ezaguneneta-riko batzuek hartu dute parte.

Film luze bakarrean josi edo lotuko dituzte sei laburrak, eta horretarako, gai berberaren inguruan egin dituzte labur guztiak: maitasuna. Horrez gain, film guztietan 20 euroko billetea agertzen da, denetan billete berbera, bigarren lotura gisa. Aitor Arregik honela azaltzen digu: "Txapel bat ipini behar genien film labur guztiei, eta ikusi genuen gai unibertsal bat aukeratu behar genuela, gustukoa izan zitekeena hemen eta beste leku batzuetan. Azkenean, gai beharbada tipikoa aukeratu genuen, maitasuna, alegia. Baina gero, buelta bat eman diote gai horri ikasleek".

Haria, gidoia ere ikasleek idatzi zuten, eta denetariko istorioak asmatu dituzte: "Stockholm sindromearen inguruko maitasun istorio bat, bi agure anarkistaren arteko adiskidetasun eta maitasun istorioa, Inem-en ilara baten sortzen den istorio kurioso bat…", aipatzen du Aitor Arregi irakasleak.



Ikasle batzuk Loli Astoreka aktorearekin, filmaketako une baten. | AMAIA TXINTXURRETA

**ESANAK**

**"Gidoia idatzi, aktoreei deitu, kokatu... geuk egin dugu"**

**"Billete bat istorio guztietan agertzen da, denak lotzeko"**

**ANDER OLABE** | IKASLEA



Piter Antsorena eta Jose Ramon Soroiz, karakterizatuta. | AMAIA TXINTXURRETA

### Ikasteko egoera bikaina

Aitor Arregik bere esperientzia erabili zuen honako proiektua ikasleei proposatzeko: "Nire sentsazioa da filmaketa baten adina ikasten den egoera gutxi daudela. Egoerak eta arazoak benetazkoak dira". Horregatik, hasiera -hasieratik ikasleak izan dira produktuaren arduradunak: "Gidoia garatu eta hori hobetzen joan ziren. Gero, kokapenak eta aktoreak ere eurek erabaki zituzten. Hala, aktoreei eurek deitu zieten, ezagun askori: Loli Astoreka, Jose Ramon Soroiz, Iker Galartza, Martxelo Rubio, Sara Cozar…", eta ezezkoekin eta zailtasunekin ere "kikildu ez" direla esaten du Arregik.

Lan biziena joan den astean egin zuten –greba egunak ere eragin zien, eta aste "intentsua" izan zen lan aldetik–, eta oporretan deskantsatu egingo dute. Bueltan, postprodukzio lana egin beharko dute. Gero, asmoa da emaitza, film luzea, ahalik eta gehien zabaltzea.



AITOR ARREGI

**AITOR ARREGI**
HUHEZIKO IRAKASLEA

## "Film profesional bateko arazoak konpontzen joan dira"

Huhezin Ikus-entzunezko irakaslea da Aitor Arregi. Proiektuarekin, ikasleek edozein filmaketako moduko egoerak bizi izan dituztela kontatzen digu.

**Zela sortu zen proiektua?**
Pentsatu nuen ikasleak motibatzeko aukera polita izango zela: azken urtean daude eta etorkizunean pentsatzen. Eurei planteatu nahi nien, film laburrak egiteaz gain, begi bat film luze baten izatea, ardura hori izatea. Urduri nengoen, baina harrera oso ona izan zen.

**Euren eskuetan egon da dena, hortaz.**
Hori da. Kokapenak aukeratu, baimenak eskatu, aktoreak aukeratu eta deitu... Eta film profesional baten topatuko lituzkeen arazoak konpontzen joan dira.

**Joan den astean bukatu zuten grabatzen, ezta?**
Bai. Grabaketa bera oso bizia izan zen, eta niretako ederra izan da ikustea ikasle batzuek beste labur batzuetan ere parte hartzen zutela; sentitzen zuten besteena ere eurena zela. Oso fin ibili dira.

**Eta film luzea egiten duzuenean, ze asmo duzue?**
Filma ateratzea, ez dadila baztertuta geratu. Asmoa da ahalik eta gehien zabaltzea: estreinaldiak egitea, komunikabideetan irtetea, eta ikasleak irten daitezela, produktua eurek saldu eta eurek defendatu beharko dutelako.

# Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FARMAZIA

**AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL**
Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Munduko kontu kontalarien ahotsetik ipuinak, Arrasaten

Apirilaren 20an hiru herrialdetako kontalariak izango dira Kulturaten

**IRATI GOITIA** | ARRASATE
Munduko Kontu Kontalariak jaialdia egingo dute apirilaren 19tik 21era bitartean eta Euskal Herriko zazpi herritan izango dira emanaldiak; tartean, Arrasaten.

**Bost kontalari**
Haiti, Kolonbia, Kuba, Frantzia eta Euskal Herria. Munduko bost txoko horietako kontuak entzun ahal izango dira jaialdian bost ahotsengandik, bost kontalariren ahotik, hain zuzen: Mimi Barthelemy haitiarra, Carolina Rueda kolonbiarra, Pepito Mateo frantziarra, Alexis Diaz Pimienta kubatarra eta Beatriz Egizabal euskalduna.

Nazioarteko ekimen horrek hamaika urte beteko ditu aurten, eta egitasmoaren helburua da ahotsa bitarteko eta bidelagun, herri ezberdinetako kulturak ezagutaraztea. Hala, kultura eta ohitura askotariko ipuinez gozatzeko aukera paregabea da.

**Bost herrialde, zazpi herri**
Euskal Herriko zazpi herritan izango da ipuinez gozatzeko aukera: Arrasate, Arrigorriaga, Basauri, Berango, Berriz, Durango eta Elorrio. Herri bakoitzean kontalari ezberdinek hartuko dute parte. Arrasaten, adibidez, Beatriz Egizabal, Mimi Barthelemy eta Alexis Diaz Pimienta izango dira kontuan. Apirilaren 20an da hitzordua, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan. Gainerako hitzorduak alboko taulan zehazten dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: *mundukokontalariak.com*.

**HITZORDUAK**

**APIRILAK 19**
- **12:00** Elorrioko Arriola antzokian.
- **17:00** Arrigorriagako Abusu liburutegian.
- **20:00** Basauriko kultura etxean.
- **20:00** Berrizko kultura etxean.

**APIRILAK 20**
- **11:00** Basauriko kultura etxean.
- **13:00** Elorrioko Arriola antzokian.
- **19:00** Arrasateko Kulturaten.
- **20:00** Durangoko liburutegian.
- **22:00** Elorrioko Arriola antzokian.

**APIRILAK 21**
- **18:00** Berangoko antzokian.



La Banda Del Abuelo talde arrasatearra kontzertua eskaintzen. | JOSETXO ARANTZABAL

# Bideoklipa grabatzeko dirua batzen dabil La Banda Del Abuelo talde arrasatearra

Hirugarren diskoaren aurkezpen kantuaren bideoklipa izango da, eta 690 euro behar dituzte

**I.G.** | ARRASATE
La Banda Del Abuelo talde arrasatearrak *crowfundinga* jarri du martxan bideoklipa grabatzeko. Aner Arregi taldeko kideak dirua batzeko medoto hori aukeratzearen zergatiak azaldu dizkigu: "Jendearengana hurbiltzeko eta ezagutzera emateko bide ona da".

**Ekarpenekin, 690 euro**
Rock taldeak 690 euro behar ditu *Culo de luciernaga* izeneko bideoklipa grabatzeko. *La sed del fuego* deituriko euren hirugarren lanaren aurkezpen kantua izango da hori. Arregik eman dizkigu proiektuaren gaineko azalpenak: "Lagundu nahi digunak *verkami.com* webgunean sartu eta bertan egin dezake ekarpena. Gutxieneko kopurua hamar euro da. Egia esan, harrituta ere bagaude, bada-eta 25 euro eman digunik ere".Dagoeneko 175 euro jaso dituzte, baina proiektuak epemuga du eta 25 egun gelditzen dira emariak egiteko. Batutako dirua kamera digital bat alokatzeko eta bideoklipean dohainik parte-hartuko duten aktoreendako jatekoa erosteko erabiliko da.

Laguntzaileei sariak emango dizkiete trukean; besteak beste, kreditutan azaltzea, taldeak sinatutako diskoa, bideokliparen DVDa, bi sarrera kontzertu baterako eta *Culo de luciernaga* zuzenean kantatzea.

Taldearen asmoa da apirilean egitea bideokliparen grabazioa eta maiatzean muntaia. Azkenik, ekainean jarriko dute sarean ikusgai. Josu Arteagak egingo ditu kameralari lanak.

**Kontzertuak**
Taldearen hurrengo kontzertuak izango dira: hilaren 28an Arrasateko gaztetxean eta maiatzaren 11n Oñatiko Antton tabernan.

## Namek Planeta taldeak Arrasateko Iluntz tabernan joko du egubakoitz honetan, 19:00etan

Elorrioko musika taldeak *Paradisua* izeneko azken lana aurkeztuko du Arrasateko Iluntz tabernan apirilaren 6an, egubakoitza, arratsaldeko zazpietan. Rock doinuak egiten dituzte Elorrioko gazteek, baina pop ukitua ere badute haien abestiek. Aurkeztuko duten lana euren bigarrena da; 2011n kaleratu zuten. Lehenengo diskoa 2009an argitaratu zuten, *Namek Planeta* izenpean. Ordutik hona, euren estiloa zertxobait aldatu da, baina indar berberarekin segitzen dute.



Namek Planetako mutilak gitarrak astintzen. | NAMEK PLANETA

## Maite Toledo idazleak bi liburu aurkeztuko ditu Bergarako Aroztegi aretoan apirilaren 19an

*Jet lag* eta *Tekno+Turismoa* izeneko liburuak aurkeztuko ditu Maite Toledo idazleak Bergarako Aroztegi aretoan apirilaren 19an, eguena, 19:30ean. Liburuak ere sinatuko ditu ekitaldian. Lehena poesia liburua da eta bizitzako erritmoez mintzo da. Bigarrena, berriz, industria, zientzia eta teknologia guneetan eginiko saiakera da eta Deba arroa du erreferente eremu. Hala, teknoturismoko onurak ere aurreratzen ditu idazleak lanean.

# Kontzertu bira egingo du Malatu musika taldeak Londresen

**I.G.** | LEINTZ GATZAGA
Malatu taldeak hainbat kontzertu eskainiko ditu Londresko zenbait lokaletan apirilaren 8tik 12ra bitartean. Mikel Gartzia taldeko gitarrista eta konposatzaileak hauxe esan digu: "Abentura bat izango da guretzat; izan ere, ez gara inoiz Euskal Herritik irten. Sarri, zaila izaten da euskaraz abestuta kanpora irtetea. Gogotsu daude kontzertuak eskaintzeko".

**Bira, Londresen**
London Basque Societyren laguntzarekin antolatu dute bira. Lehen emanaldia apirilaren 8an izango da Oxford House antzokian, egun horretan ospatzen den Aberri Egunaren harira. Hurrengo egunean, apirilaren 9an, eskainiko dute bigarren emanaldia, Gallery Cafen. Hirugarren eta azken kontzertua apirilaren 12an izango da Waterline pubean.



Malatu taldea kontzertua eskaintzen. | MALATU


**Ane Pico** | Hezitzailea eta psikopedagogoa

Haur Hezkuntza eta Psikopedagogia ikasi ondoren, Gizarte Integrazioan ari da orain.

MIREIA BIKUÑA

# "Nikaraguako eta Peruko bidaietatik ekarritako esperientziak benetan politak izan dira"

**MIRYAM GALILEA** | OÑATI

Aurten 24 urte bete ditu Ane Picok, eta, Haur Hezkuntza eta Psikopedagogia ikasi ondoren, Gizarte Integrazioan dihardu orain. Nikaraguan proiektuak, Perun... denbora aprobetxatzen du oñatiar honek, eta oso argi dauka zer nahi duen.

**Hiru ikasketa desberdin; zeinekin gusturen?**

Gizarte Integrazioa gustatzen zait, baina umeek erakartzen naute gehien. Aurreko urtean diplomatura amaituta lanean hasi nahi nuen, baina egoeragatik ez nuen topatzen, eta ikasten jarraitzea erabaki nuen. Interneten begiratzen hasi ninten, ikasturtea hasita zegoelako; akademia batean apuntatu eta bertan ariketak egiten ditut. Ekainean Gizarte Integrazioko proba libreak daude, eta aurkeztuko naiz.

**Krisi egoera ikusita, damutu zara ikasitakoa aukeratu izanaz?**

Ez. Oso gustura nago eta badakit nire lekua nonbaiten egongo dela, eta, umeekin ez bada, integrazio sozialarekin ateak zabaltzen ditut. Lana bilatzeko gaizki dago, Haur Hezkuntzako zerrenda publikoak aspaldi ez dira zabaldu eta pribatuetan ere lanik ez dut topatu; egunean ordu bat edo bi, asko jota... Askotan, zortea dela uste dut, eta momentuan egotea!

**Nikaraguako proiektua aurrera doa?**

Irakasle ikasketen hirugarren urtean Nikaraguan egin nituen praktikak, eta hor sortu zen *Eta guk zergatik ez?* proiektua, bertako umeak eskolatzeko. Laugarren urtea da aurrera eramaten duguna, eta oso gustura nago. Hau egiten ari zarela pentsatzen duzu eta ondo sentitzen zara. Azkenaldian lau lagun egon gara honetan, eta bat Nikaraguara joan da. Han oso pozik dago, eta hurrengo astean deituko digula esan digu, oso notizia onak dituela.

**Zerbait berezirik atera duzu egindako bidaietatik?**

Bidaiatzea betidanik gustatu izan zait, baina bakarrik ez, beti jendearekin, eta, Nikaraguako kasuan, izena eman eta ez zenekien zeinekin, nora... baina zorte handia izan nuen, nahi nuen lekura joan nintzen, eta, gainera, gertuko jendearekin. Oso esperientzia polita izan zen. Bestalde, aurreko urtean, maiatz bukaeran amaitu nuen Psikopedagogia, eta, ekaina libre izanda, koadrilako beste batekin hitz egin eta GKE batekin bidaian joatea pentsatu genuen. Hegaldia hartu, eta Perura joan ginen maiatz bukaeratik uztailaren 10a arte. Guztiz diferentea da. Nikaraguan, ikastolan ordu gehiago botatzen genituen, eta proiektuan eta umeekin zentratu ginen... baina Perun arratsaldeetan egiten genuen GKErekin lana, komunitate batean errefortzu eskolarrak ematen. Hiru ordu botatzen genituen eta besteak libre geneuzkan. Kasu honetan, esperientzia pertsonala oso ona izan da: etxe batean espainiarrak, argentinarrak, peruarrak... geunden eta lagun onak egin genituen.

**Beste inora joatea pentsatu duzu dagoeneko?**

Noski, baina dirua da arazoa. Argentinako lagun min bat egin genuen Perun, eta hara joateko esan digu, baina momentu honetan ezin dut. Kasu honetan bai, bakarrik joango nintzateke! Horrelako bidaia bat ekonomiko lortzeko aukera bakarra Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak eskatzea da, baina hauetan, tokatzen zaizun lekura eta pertsonekin joan behar duzu...

**Momentu honetan lanean zaude?**

Bai. Irakasle ikasketen hirugarren urtea ikasten ari nintzenean, Oñatiko Gainditun egon nintzen urtebetez lanean, baina gero Nikaraguara joan nintzen eta utzi egin nuen. Aurten, lagun batek psikopedagogia tituludun bat eskatzen zutela esan zidan, curriculuma bidali nuen eta deitu egin zidaten. Lehen, etxeko lanak eta horrelakoak egiten nituen, baina momentu honetan diagnostiko desberdina duten bi umerekin nabil lanean. Desberdina da eta ikasitako guztia praktikan jartzeko aukera ematen dit, eta egunero gehiago jakiteko gogoa piztu.

## PERTSONALA

**Oñatiko txoko maiteena:** Aitzulo.

**Bidaiatzeko lekua:** Kuba dut beti buruan.

**Amets bat:** Giza eskubideak beti errespetatuak izatea.

**Azken afizioa:** Nikaraguako dantza ikastaroa.

**Aste Santuko plana:** Nojara edo Cuencara, baina beti lagunekin.

**Kirol gustukoena:** Saskibaloia, tonifikazioa, korrika... paseatzea gustatzen zait gehien.

**Liburu bat:** *Dime quién soy*, Julia Navarrorena.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Mobil homea Iratxen.** Nafarroako kanpinik onenean. 45 metro koadro ingurukoa. 6-8 pertsonarendako. Bikotearendako logela bat eta bi oheko bi logela. Jangela-egongela eta sukalde hornitua. Portxea eta lorategia. 686 77 04 97 edo jm.urrataxi@hotmail.com

**Saint Lary.** Estudioa salgai, Frantziako Pirinioetan. Pistetan bertan. Guztiz jantzia. Prezio negoziagarria. 664 12 22 11

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Bi komun. Argitsua. Prezio onean. 647 22 09 38 edo 665 72 28 46

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Dena kanpoaldera begira. Igogailua, lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldea. Hornitua eta jantzia. 607 32 74 32

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Antzuolan etxea behar dugu errentan. Baserria ere hartuko genuke. 626 73 40 19 edo 699 24 86 99

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa. Partikular artekoa. 634 12 56 87

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678 73 66 54

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat alokagai dugu unibertsitate ondoan. 630 71 35 83

**Arrasate.** Pertsona bat behar da Altamira auzoan 4 logela eta 2 bainugela dituen etxebizitza osatzeko. Etxea oso ondo dago eta langileak bizi dira bertan. 653 71 44 57

**Bergara.** Logela ematen da errentan etxebizitza osatzeko. Erdigunean. Deitu 608 17 77 55 telefonora.

### 106. BESTELAKOAK

**Trukea.** Saloun (Pineda) daukadan etxebizitza trukatuko nuke Arrasateko etxebizitza bategatik. Erdi berria. Urbanizazio pribatua. Hondartzatik 300 metrora. 943 79 45 74

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** 15 metro koadroko garaje itxia salgai Espoloian. 20.000 euro. Deitu 19:30etatik 22:00etara zenbaki honetara: 606 74 15 32

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**OÑATI**
Pertsona euskalduna behar da tabernan lan egiteko.
654 61 25 88
675 70 62 10

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta edo Arrasate.** Haur Hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Goizez edo arratsaldez. Deitu 688 88 39 57 teleonora.

**Aretxabaleta.** Emakume euskalduna umeak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. 666 26 07 62

**Arrasate.** Arratsaldetan edo asteburuetan lan egingo nuke tabernetan edo nagusiak zaintzen. 606 64 16 09

**Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan.** Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77

**Bergara.** Denetariko errekauak eta erosketak egiten dira. Bergaran bakarrik. 666 46 69 69

**Bergara.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko arratsaldetan. 610 34 97 88

**Bergara.** Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Esperientziaduna. 680 77 06 46

**Debagoiena.** Emakume arduratsua garbiketa lanak egin (etxebizitzak, bulegoak, eskailerak. ) eta pertsona nagusiak saintzeko prest. 671 98 94 34

**Debagoiena.** Gela-zerbitzari tituludun emakumea hotel eta ostatuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Deitu 671 98 94 34 telefonora.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua, pladur montatzaile laguntzaile bezala lan egiteko prest. Esperientziduna. Deitu 677 62 22 21 telefonora.

**Debagoiena.** Gizon gaztea C eta C1 gida-baimenarekin, lanerako prest. 683 42 87 04

**Debagoiena.** Mutil gaztea ileapaindegi lanetan esperientziaduna, lanerako prest. 683 42 87 04

**Debagoiena.** Mutil gaztea nekazaritzan esperientzia duena, baserrietako ortuetan lan egiteko prest. 698 38 00 32

**Debagoiena.** Mutil gaztea ostalaritzan lan egiteko prest: sukaldari laguntzaile, tabernari laguntzaile, plater-garbitzaile eta abar. 634 62 33 95

**Debagoiena.** Neska gertu orduka lan egiteko, ospitalean gauak eginaz, nagusien zaintzan edo garbiketan. Deitu telefono honetara: 636 80 87 68

